

EMAKUMEAREN DEKLARATZEKO BETEBEHARRAREN DISPENTSA GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN

- GRADU AMAIERAKO LANA –
Zuzenbide Gradua

IKASLEA:

Enara Tapia Larrakoetxea

ZUZENDARIA:

Goizeder Otazua Zabala

2021-2022 IKASTURTEA

IKD i³ Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022

Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa,
diziplinarteko ikustegitik (IKDi³ 21-30)

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	3
I.- SARRERA.....	4
II.- TESTUINGURUA.....	6
1. DISPENTSA GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN.....	6
1.1. Kontzeptua eta eremu subjektiboa.....	6
1.2. Dispentsaren oinarria eta helburua.....	7
2. DISPENTSAREN ARAU-OINARRIA.....	9
III.- DISPENTSAREN ERREGIMENAK SORTUTAKO ARAZOAK GENERO- INDARKERIAREN ARLOAN.....	12
1. IBILBIDEA.....	12
2. DISPENTSAK IZANDAKO OZTOPO NAGUSIAK.....	14
2.1. Dispentsa erabiltzeko akusatuekiko lotura izateko beharra.....	14
2.2. Lekuko-biktimaren kalitatea.....	17
2.3. Emakumearen deklarazioa balio frogagarri gisa.....	19
2.4. Instrukzioan egindako deklarazioaren balioa.....	20
2.5. Genero-indarkeriaren biktima den emakumearen salaketa.....	23
2.6. Biktima-salatzailea akusazio partikular gisa aurkeztea.....	24

2.7. Biktimari dispentsari buruz informatzeko betebeharra	27
IV.- DISPENTSAREN EGUNGO LEGE-ERALDAKETA.....	29
1. LEGE-ERALDAKETAREN HELBURU NAGUSIAK	29
2. DISPENTSAREN ARAUKETAREN ERREFORMA: SALBUESPENAK.....	30
V.- DEKLARATZEKO BETEBEHARRAREN DISPENTSAREN ALTERNATIBAK GENERO-INDARKERIA ARLOAN.....	37
1. EZ DEKLARATZEA ETA DISPENTSARI HELTZEA: ARRAZOIAK ETA DATU ERREALAK.....	37
2. DISPENTSARI HELTZEA SAIHESTEKO ALTERNATIBAK GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAT.....	38
1.1. Bideokonferentziaren erabilera.....	39
1.2. Biktimari laguntzea eta sentsibilizazioa.....	41
3. DISPENTSA ERABILTZEAREN AURREKO ALTERNATIBAK.....	42
2.1. Aurretiazko frogaren erabilera.....	43
2.2. Lekukoen parte hartzea.....	45
2.3. Lesio-partiak eta txosten medikuak froga objektibo gisa.....	48
VI.- ONDORIOAK.....	49
VII.- BIBLIOGRAFIA.....	55

LABURDURAK

- AG Auzitegi Gorena
- AGE Auzitegi Goreneko Epaia
- Art. Artikulua
- AX. Azken xedapen
- BJLO Botere Judizialaren Lege Organikoa
- EK Espainiako Konstituzioa
- JAN Justizia Auzitegi Nagusia
- JANE Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia
- KA Konstituzio Auzitegia
- KAE Konstituzio Auzitegiaren Epaia
- Koord. Koordinatzailea
- LO Lege Organikoa
- PA Probintzia Auzitegia
- PAE Probintzia Auzitegiaren Epaia
- PKL Prozedura Kriminalaren Legea
- OJ Oinarri juridiko
- Or. Orrialdea
- Zk. Zenbakia
- Zuzend. Zuzendaria

I.- SARRERA

Lan honetan zehar aztertuko duguna izango da zigor prozesuaren eremuan eztabaidagai izan den eta oraindik ere baden tresna bat. Zehazki, Prozedura Kriminalaren Legeko (aurrerantzean PKL) 416.1.artikuluaren deklaratzeko betebeharraren dispentsari buruz ari gara, genero-indarkeriaren eremuan. Aipatutako artikuluak pertsona jakin batzuei aitortzen die akusatuaen aurka ez deklaratzeko eskubidea, akusatuaiekiko ahaidetasuna edo afektibitatea dela eta. Eredu subjektibo horren barruan, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute bere erasotzailearen aurka ez deklaratzeko. Hori dela eta, hainbat arazo sortu izan dira dispentsaren erregimena interpretatzeko eta aplikatzeko orduan. Izan ere, genero-indarkeriaren eremuan, emakumea izan ohi da gertakarien lekuko bakarra, normalean intimitatean gertatzen diren delituak direlako. Beraz, emakumearen deklarazioa funtsezkoa da; are gehiago, emakumeak dispentsari heltzeak erasotzailearen absoluzioa eragiten du kasu askotan, froga faltagatik.

PKLko jatorrizko idazketa egin zenetik, PKLko 416.1.artikuluaren dispentsa gai gatazkatsua izan da. Hasieran, dispentsaren erregimena oso zabala zen, mugarik eta salbuespenik gabe erabil zitekeelarik. Hori dela eta, urteetan zehar hura aldatzeko erreforma-proposamenak egon dira. Ildo horretatik, uztailaren 20ko Auzitegi Gorenaren 389/2020 Epaiak genero-indarkeriaren eremuan dispentsa mantentzeari buruzko eztabaida piztu zuen, lan honetan zehar aztertuko dugun bezala.

Azkenik, haurrak eta nerabeak osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren (aurrerantzean LO) bidez, PKLko 416.1.artikuluaren erreforma iritsi da, dispentsaren mugak ezarriz, adingabeak eta mendekoak diren desgaituak babesteko modu gisa. Hala ere, dispentsaren erabileraren inguruko hutsuneak daude oraindik.

Azaldutako guztiagatik, gure ikerketa-lana genero-indarkeriaren eremuan deklaratzeko betebeharraren dispentsan oinarrituko dugu. Lan honetan zehar, dispentsaren erregimena eta eboluzioa aztertuko dugu sakonki, iritzi jurisprudenzialetan eta doktrinaletan murgilduz, tresna prozesal honek genero-indarkeria arloan dakartzan arazoak ulertzeko eta horiei konponbidea emateko.

Ikerketa hau egiteko, egiturari dagokionez, 5 blokeetan zatitu dugu lana. Hasteko, emakumearen deklaratzeko betebeharren dispentsaren testuinguruan murgilduko gara. Horretarako, dispentsaren kontzeptua, eremu subjektiboa, oinarria eta helburua aztertuko dira. Era berean dispentsaren arau-oinarria analizatuko dugu, bai prozesalki bai konstituzionalki.

Bigarrenik, aztertuko ditugu dispentsaren erregimenak urteetan zehar sortutako arazoak genero-indarkeriaren arloan. Hasteko, dispentsaren ibilbidea ikusiko dugu, hots, dispentsaren erregimena egungo lege-eraldaketa baino lehen. Izan ere, arauketa zaharra dela eta dispentsaren erregimena oso zabala zen. Hori dela eta, identifikatuko ditugu sakonki dispentsak izandako oztopo nagusiak arauketa zaharraren haritik, arazo horiei jurisprudentziaren eta doktrinaren aldetik ematen zaien irtenbidea aztertzearekin batera. Ildo horretatik, uztailaren 10eko 389/2020 Auzitegi Gorenaren Epaiari (aurrerantzean AGE) aipamen berezia egingo diogu, dispentsaren edukiaren gaur egungo erreforma oinarritu baitu; izan ere, bertan eztabaidatu ziren dispentsa aplikatzeko zenbait baldintza.

Hirugarrenik, dispentsaren egungo lege-eraldaketa sakonduko dugu, ekainaren 4ko 8/2021 LOk PKLko 416.1.artikuluan gehitutako dispentsa ez aplikatzeko kasuak aztertuz eta baloraturaz.

Laugarrenik, aztertuko ditugu genero-indarkeria arloan deklaratzeko betebeharraren dispentsaren inguruan dauden alternatibak. Alde batetik, aipatuko dugu zeintzuk izan daitezkeen dispentsari heltzea saihesteko alternatibak. Bestetik, azalduko dugu nola zigor prozesuak egin dezakeen aurrera biktimaren deklarazioa ez dagoen kasuetan, hau da, biktimak deklaratzeko betebeharraren dispentsa erabiltzen duen kasuetan.

Azkenik, lanean zehar ikertu eta aztertu diren gaiei buruzko ondorioak adieraziko ditugu, dispentsak sortutako arazoak eta oraindik dauden hutsuneak konpontzeko proposamenak egitearekin batera.

II.- TESTUINGURUA

1. DISPENTSA GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN

1.1. Kontzeptua eta eremu subjektiboa

Gure aztergaiaren murgildu baino lehen, beharrezkoa da zehaztea zein indarkeria motatan oinarritzen den emakumearen deklaratzeko betebeharraren dispensa. Zehazki, genero-indarkeriaz ari gara, eta, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 LOko xedatzen duen bezala, genero-indarkeria da ezkontidea den edo izan den edo antzeko afektibitate-harremanak dituen edo izan dituen gizonak emakumearen aurka eragindako indarkeria, nahiz eta elkarrekin bizi ez¹. Era berean, lege honetan aipatzen den genero-indarkeriak barne hartzen du aipatutako pertsonak emakumeei kalte egiteko beren senide edo gertuko adingabeei egiten dieten indarkeria². Eta horrek, gure ustez, barnebildu egiten du adingabeak eta mendeko pertsonak genero-indarkeriaren biktimek hartzea.

Legearen arabera genero-indarkeria zer den argituta, deklaratzeko betebeharraren dispensaren kontzeptua azalduko dugu genero-indarkeriaren arloan. Konkretuki, PKLko 416.1.artikuluak aitortzen duen deklaratzeko betebeharraren dispensa da genero-indarkeriaren biktimek zigor-arloko prozesuan ez deklaratzeko erabili ohi duten tresna prozesala, hasieran aurkeztutako salaketa kentzearekin batera³.

Esandakoa aintzat hartuz, deklaratzeko betebeharraren dispensaren eremu subjektiboa argitu beharra dago. Genero-indarkeriaren arloan, dispensaren eremu subjektiboa genero-indarkeriaren definizioan aipatutako biktimekiko da, definizio hori

¹ Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 LOko 1.1.art: *“1. La presente Ley tiene por objeto actuar contra la violencia que, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres, se ejerce sobre éstas por parte de quienes sean o hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aun sin convivencia”*.

² Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean erabat Babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 LOko 10.XA, zeinak 1/2004 LOko 1.artikuluak aldatzen duen, 4.puntua gehituz: *“La violencia de género a que se refiere esta Ley también comprende la violencia que con el objetivo de causar perjuicio o daño a las mujeres se ejerza sobre sus familiares o allegados menores de edad por parte de las personas indicadas en el apartado primero”*.

³ Horrela ulertzen du, GONZÁLEZ MONJE, Aliciak, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 4.or.

PKLko 416.1.artikuluarekin lotuz. Izan ere, artikuluko horrek deklaratzeko betebeharraren dispensa aitortzen dio, besteak beste, akusataren ezkontideari edo ezkontzaren antzeko egitatezko harremanaren bidez lotutako pertsonari, afektibitatea dela-eta⁴.

1.2. Dispentsaren oinarria eta helburua

Normalean, genero-indarkeriaren eremuan, biktimaren deklarazioaren bidez frogatzen dira delitu-egitateak, baina, askotan, ezinezkoa da horiek frogatzea biktimak deklaratzeko betebeharraren dispensari heltzen diolako⁵. Halako kasuetan deklaratzera behartuta dagoen emakumeak barne-eztabaida batekin egingo du topo: alde batetik, legalki dagokion deklaratzeko betebeharra, eta, bestetik, bere deklarazioak bere ezkontide edo bikotekideari kalte egitea nahi ez izateko sentimendua⁶. Gatazka hori familiaren ideiarekin azpian dago, botere publikoei dagokien babes juridikoa duen erakunde gisa⁷.

Orduan, deklaratzeko betebeharretik salbuesteko oinarria izan daiteke isiltasuna ez den beste jokabide bat ez eskatzea, bai inputatuarekiko elkartasun-lotura dela eta, bai familia-eremuko intimitaterako eskubidea dela eta. Hala ere, oinarri horiek nahiko gatazkatsuak dira. Zergatik? Alde batetik, erasotzailearekiko elkartasun-loturari dagokionez, genero-indarkeria eremuan delitu bat egite hutsak ahaideen arteko elkartasun-zentzu hori hausten duelako. Bestetik, familia-intimitatean ematen diren egitateak izanda, hori kontraesanean dagoelako genero-indarkeriak esparru erabat pribatua izateari uztearekin eta guztion kontua izatearekin, hots, inork beste alde batera ez begiratzearekin, genero-indarkeriarekiko zero tolerantzia lelo desiratua lortzeko⁸.

⁴ PKLko 416.1.art: “*Están dispensados de la obligación de declarar: 1. Los parientes del procesado en líneas directa ascendente y descendente, su cónyuge o persona unida por relación de hecho análoga a la matrimonial, sus hermanos consanguíneos o uterinos y los colaterales consanguíneos hasta el segundo grado civil*”.

⁵ Zentzu horretan, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Dispensa del deber de declarar. ¿derecho de la mujer víctima de violencia de género?”, VALIÑO CES, Almudena (Koord.), RODRÍGUEZ ALVAREZ, Ana (Koord.); CASTILLEJO MANZANARES, Raquel (Zuzend.), ALONSO SALGADO, Cristina (Zuzend.); *El género y el sistema de (in)justicia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 162-170.or.

⁶ Ideia horren haritik, GONZÁLEZ MONJE, Alicia, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 8.or.

⁷ EKko 39.1.art: “*Botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute*”.

⁸ Ideia horren haritik, GONZÁLEZ MONJE, Aliciak, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 8-9.or.

Dispentsari dagokionez, jurisprudenziaren arabera: *“La excepción o dispensa de declarar al pariente del procesado o al cónyuge que establece este artículo, tiene por finalidad resolver el conflicto que se le puede plantear al testigo entre el deber de decir la verdad y el vínculo de solidaridad y familiaridad que le une con el procesado. Esta colisión se resuelve con la dispensa de declarar. La víctima puede sobrevalorar el vínculo de afecto y parentesco que le une al victimario, que el legítimo derecho a declarar contra él. Es una colisión que debe resolverse reconociendo el derecho a la víctima de decidir libremente, en ejercicio de su autodeterminación en uno u otro sentido”*⁹. Beraz, hortik ondorioztatzen dugu dispentsaren funtsezko oinarria dela biktima akusatuarekin lotzen duen elkartasun- eta etxekotasun-lotura.

Hala ere, urteetan zehar, Auzitegi Gorenak (aurrerantzean AG) uste izan du PKLko 416.artikulua akusatua babesteko sortu dela (*in dubio pro reo*), eta zalantza kasuetan, akusatuaren alde egiten zen. Zehazki, oinarri gisa, apirilaren 11ko 331/1996 AGE daukagu, zeinaren arabera: *“La disposición contenida en el artículo 416.1 LECr está pensada para proteger al presunto culpable y no para perjudicarlo”*¹⁰. Dena den, gaur egun hasierako posizio hori gainditutzat jo daiteke¹¹. Izan ere, genero-indarkeriaren eremuan, dispentsak babestu egiten du deklaratzeko betebeharraren eta gertakariak ezkutatzeko edo isilarazteko interesaren arteko gatazka-egoera horretan dagoen emakumea, akusatua ez inkriminatzeko; zeinak isiltasun horren onura izango duen beti¹². Hala ere, VILLAMARÍN LÓPEZ-ek dioen bezala, dispentsa aplikatzearen ondorioa da hori, baina ez haren izateko arrazoia, eta, beraz, ez da onuragarria zigor prozesuan alderdi pasiboa izateagatik, baizik eta ordenamenduak babesten duen familia-unitateko kide izateagatik¹³.

Konklusio gisa, ondorioztatzen dugu genero-indarkeriaren eremuan dispentsaren helburua dela emakumeari planteatzen zaion gatazka horri konponbidea bilatzea, egia

⁹ 134/2007 AGE, otsailaren 22koa, 1. OJ. Ildo beretik: 485/2021 AGE, ekainaren 3koa, 1.OJ; Nafarroako 19/2021 JANE, ekainaren 11koa, 2.OJ; Santa Cruz de Tenerifeko 440/2021 PAE, abenduaren 15koa, 1.OJ; Valentziako 149/2018 JANE, abenduaren 18koa, 3.OJ.

¹⁰ 331/1996 AGE, apirilaren 11koa, 3. OJ.

¹¹ 292/2009 AGE, martxoaren 26koa, 3.OJ.

¹² Ideia horren haritik, GONZÁLEZ MONJE, Alicia, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 9.or.

¹³ Horrela dio, VILLAMARÍN LÓPEZ, María Luisak, “El derecho de los testigos parientes a no declarar en el proceso penal”, *Indret, Revista para el análisis del Derecho*, 4.zk., 2012, 11.or.

esateko betebeharraren eta auzipetuarekiko duen elkartasunaren artean. Arazo hori konpondu behar da biktimari autonomiaz erabakitzeke eskubidea aitortuz, edozein zentzutan¹⁴. Hori dela eta, salbuespen gisa baino gehiago, dispentsa ihesbide juridiko gisa kalifikatzen da, emakumea zigortzeko moduko egitate bat ikertzera deitutako organo jurisdikzionaletan lankidetzan aritzeko betebeharratik askatzen duena¹⁵.

2. DISPENTSAREN ARAU-OINARRIA

Alde batetik, deklaratzeko betebeharraren dispentsaren arau-oinarria PKLn dago. Hasteko, jakin beharra dago PKLk arautzen duela deklaratzeko betebeharrak 410. eta 707.artikuluetan. Horiek arautzen dute, hain zuzen ere, epailearen deialdira jotzeko betebeharrak orokorra, ikertu beharreko egitateei buruz izan dezaketen ezagutzagatik lekukotza emateko; betebeharrak hori Espainian bizi diren guztiei dagokie. Eta betebeharrak horren barruan sartzen dira epaitzen ari diren delituen biktimak¹⁶.

Hala ere, PKLk arautzen ditu deklaratzeko betebeharraren salbuespenak, eta horen haritik, heltzen gara PKLko 416.1.artikulura. Artikulu horrek deklaratzeko betebeharraren dispentsa aitortzen die subjektu jakin batzuei ahaidetasuna dela-eta. Beraz, dispentsaren arau-oinarri prozesala PKLko 416.1.artikuluaren dago¹⁷. Are gehiago, PKLko 418.artikuluak adierazten du ezin direla deklaratzera behartu 416.1.artikuluaren adierazitako pertsonak, senideei inolako kalterik ez egiteko¹⁸.

¹⁴ Horrela ulertzen du, YUGUEROS GARCÍA, Antonio Jesús, “Las dispensas procesales en el contexto de la violencia de género en las relaciones de pareja o expareja”, *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, 79.zk., 2018, 146.or.

¹⁵ Horrela dio, MARTÍNEZ MORA, Gemak, “La difícil protección judicial de la víctima de violencia de género. La dispensa del deber de prestar declaración del artículo 416 LECrim”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2176 zk., 2015, 8.or.

¹⁶ PKLko 410.art.: “*Todos los que residan en territorio español, nacionales o extranjeros, que no estén impedidos, tendrán obligación de concurrir al llamamiento judicial para declarar cuanto supieren sobre lo que les fuere preguntado si para ello se les cita con las formalidades prescritas en la Ley*”. Era berean, PKLko 707.art.: “*Todos los testigos están obligados a declarar lo que supieren sobre lo que les fuere preguntado, con excepción de las personas expresadas en los artículos 416, 417 y 418, en sus respectivos casos*”.

¹⁷ PKLko 416.1.art.: “*Están dispensados de la obligación de declarar: Los parientes del procesado en líneas directa ascendente y descendente, su cónyuge o persona unida por relación de hecho análoga a la matrimonial, sus hermanos consanguíneos o uterinos y los colaterales consanguíneos hasta el segundo grado civil. El Juez instructor advertirá al testigo que se halle comprendido en el párrafo anterior que no tiene obligación de declarar en contra del procesado; pero que puede hacer las manifestaciones que considere oportunas, y el Letrado de la Administración de Justicia consignará la contestación que diere a esta advertencia*”.

¹⁸ PKLko 418.art.: “*Ningún testigo podrá ser obligado a declarar acerca de una pregunta cuya contestación pueda perjudicar material o moralmente y de una manera directa e importante, ya a la persona, ya a la fortuna de alguno de los parientes que se refiere el artículo 416*”.

Orduan, deklaratzeko betebeharraren dispensa PKLko 416.1.artikuluaren jasotako senideren bat ikertzen den kasuetan gertatzen da, artikulua berak xedatutako salbuespenak salbuespen¹⁹. Hala ere, erraza da hautematea eskubide horrek aparteko berezitasuna hartzen duela genero-indarkeriaren eremuan, non emakumeak lekuko eta biktima gisa parte hartzen duen aldi berean²⁰.

Bestalde, aipatutakoari, oinarri konstituzionala gehitu behar zaio. Hasteko, 1978ko Espainiako Konstituzioko (aurrerantzean EK) 18.1.artikuluaren dago, oinarriko eskubidearen izaera duena, familia-eremuko intimitatea babesteari dagokionez²¹; zehazki, artikulua hori genero-indarkeriaren eremuan kokatzen den dispensaren oinarrietako bat da. Horrekin lotuta, EKko 24.2.artikuluaren dago, PKLko 416.1.artikulua araututako deklaratzeko betebeharraren dispensarekin lotura zuzena duena²². Ildo horretatik, EKko 39.1.artikulua botere publikoek bermatu behar duten familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoari buruz dihardu²³.

Hortaz, deklaratzeko betebeharraren dispensa ez da soilik zigor prozesuan jarduteko tresna. Halako dispensak oinarri konstituzionala du ere. EKn oinarritutako eskubidea da, lekuko ahaideak deklaratzera ez behartzeko duen eskubidea. Genero-indarkeria kasuetara aplikatuz, kontua ez da akusatuak eskubidea duela emakumeak bere aurka ez deklaratzeko, baizik eta emakumeak oinarriko eskubidea duela deklaratzeko duen ala ez erabakitzeak. Aintzat hartu behar da, hala ere, ez gaudela eskubide absolutu baten aurrean; izan ere, legeak berak zehazten du lekukoak, behin auzipetuaren aurka deklaratzeko betebeharrak ez duela ohartarazita, deklarazioa eginez gero, egia esateko

¹⁹ PKLko 416.1.art.: “Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación en los siguientes casos: 1. Cuando el testigo tenga atribuida la representación legal o guarda de hecho de la víctima menor de edad o con discapacidad necesitada de especial protección. 2. Cuando se trate de un delito grave, el testigo sea mayor de edad y la víctima sea una persona menor de edad o una persona con discapacidad necesitada de especial protección. 3. Cuando por razón de su edad o discapacidad el testigo no pueda comprender el sentido de la dispensa. A tal efecto, el Juez oirá previamente a la persona afectada, pudiendo recabar el auxilio de peritos para resolver. 4. Cuando el testigo esté o haya estado personado en el procedimiento como acusación particular. 5. Cuando el testigo haya aceptado declarar durante el procedimiento después de haber sido debidamente informado de su derecho a no hacerlo”.

²⁰ DE LA HERRÁN RUIZ-MATEOS, Sergio, “A vueltas con la dispensa del deber de declarar de las víctimas de violencia de género a propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo 389/2020, de 10 de julio”, UNED. Revista de Derecho Penal y Criminología, 23 zk., 2020, 48.or.

²¹ EKko 18.1.art.: “Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da”.

²² EKko 24.2.art.: “Legeak arautuko du senidetaren egitateari edo lanbide-sekretuaren egitateari zein kasutan ez dagoen betebeharrak, ustez delitu diren egitatei buruz adierazpenak egiteko”.

²³ EKko 39.1.art.: “Botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute”.

betebeharrarekin egingo duela²⁴. Gainera, faltsuki deklaratu gero, lekukotza faltsuaren delituaren aurrean egongo ginateke²⁵.

Konklusio gisa, ulertzen dugu aztertzen ari garen dispentsa dela lekukotza emateko betebeharraren orokorraren salbuespen nagusia. Oinarri konstituzionala duen salbuespena da, EKko 24.2.artikuluko oinarrizko eskubidearen edukian jasota. Hots, emakumearen eskubidea da deklaratzeko betebeharraren dispentsari heltzea bere ezkontideari edo bikotekideari dagokionez, nahiz eta genero-indarkeriaren biktima izan, PKLko 416.1.artikulua eta EK oinarriztat hartuz.

²⁴ Horrela ulertzen du, GONZÁLEZ MONJE, Aliciak, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 11.or.

²⁵ ZKko 458.1.art.: “1. *El testigo que faltare a la verdad en su testimonio en causa judicial, será castigado con las penas de prisión...*”.

III.- DISPENTSAREN ERREGIMENAK SORTUTAKO ARAZOAK GENERO-INDARKERIAREN ARLOAN

1. IBILBIDEA

Deklaratzeko betebeharraren dispentsak sortutako arazoak ulertzeko, beharrezkoa da aztertzea dispentsaren interpretazioak izan duen garapen doktrinala eta jurisprudenziala, ekainaren 4ko 8/2021 LO heldu arte (dispentsaren egungo legeraldaketa suposatu duena). Hori dela eta, bere jatorrira joango gara.

PKLren 416.1.artikuluaren jatorrizko idazketa gaur egun dugunaren desberdina zen, nahiko anbigua, inolako argibiderik eta mugarik gabe²⁶. Beraz, emakumeak dispentsa erabil zezakeen nahi zuenean prozesu osoan zehar, mugarik gabe. Hala ere, genero-indarkeriari dagokionez, artikulua horren jatorrizko idazketak ezkontideak deklaratzeko betebeharretik salbuestea bakarrik baimentzen zuen. Hortaz, ondoriozta dezakegu bikotekidea salbuespen horretatik kanpo geratzen zela. Dena den, artikulua hitzez hitzeko lehen aldaketa azaroaren 3ko 13/2009 Legearen bidez egin zen. Horren barruan sartu zen, dispentsaren subjektu gisa, ezkontideaz gain, ezkontzaren antzeko egitatezko harremanaren bidez lotutako pertsona²⁷.

Orduan, dispentsaren eremu subjektiboan izan ezik, ikus dezakegu artikulua berak ez zuela inolako mugarik azaltzen dispentsa erabil zitekeen uneari dagokionez. Era berean, ez zuen arautzen dispentsari eusten zaion, nahiz eta ezkontza-lotura edo antzeko afektibitate-harremana hautsi. Era berean, dispentsaren erabileraren aurrean ez zegoen inolako alternatibarik araututa.

Horregatik guztiagatik, AG bere jurisprudentzia egokitzen saiatu zen, dispentsaren erabileran zenbait muga txertatuz. Hasteko, apirilaren 24ko AGeko Osoko

²⁶ PKLko 416.1.artikuluaren 1997ko jatorrizko idazketa: “*Están dispensados de la obligación de declarar: 1.o Los parientes del procesado en línea directa ascendente o descendente, su cónyuge, sus hermanos consanguíneos o uterinos y los laterales consanguíneos hasta el segundo grado civil, así como los parientes naturales a que se refiere el número tercero del artículo 261. El Juez instructor advertirá al testigo que se halle comprendido en el párrafo anterior que no tiene obligación de declarar en contra del procesado, pero que puede hacer las manifestaciones que considere oportunas, consignándose la contestación que diere a esta advertencia*”.

²⁷ Azaroaren 3ko13/2009 Legeko 47.art: “*El art. 416.1 LECrim queda redactado como sigue: Están dispensados de la obligación de declarar: Los parientes del procesado en líneas directa ascendente y descendente, su cónyuge o persona unida por relación de hecho análoga a la matrimonial, sus hermanos consanguíneos o uterinos y los colaterales consanguíneos hasta el segundo grado civil, así como los parientes a que se refiere el número 3 del artículo 261...*”.

Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakiaren arabera, PKLko 416.1.artikuluari aurreikusitako deklaratzeko betebeharraren dispentsaz baliatu daitezke artikuluari aipatzen diren loturetako baten bidez elkartuta dauden edo egon diren pertsonak. Hala ere, AGren esanetan, ezin izango da dispentsa erabili ezkontza desegin ondoren edo antzeko afektu-egoera behin betiko utzi ondoren gertatutako egitateak badira edo lekukoa prozesuan akusazio gisa aurkeztuta badago²⁸.

Hala ere, geroago, AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren beste Erabaki batek, 2018ko urtarrilaren 23koak, interpretazio-ildo hori zuzentzen du. Horren arabera, alde batetik, ahozko judizioaren unean PKLko 416.1.artikuluko dispentsa erabiliz gero, ezinezkoa da lekukoaren aurreko deklarazioak erreskatatzea edo baloratzea, nahiz eta adierazpen horiek kontraesanean egin edo aldez aurretik eraturako frogatzat hartu. Bestetik, adierazi zen akusazio partikular gisa aurkeztutako biktimak dispentsarako eskubidea berreskuratzen duela izaera horri uko egin arren²⁹.

Akordio horrek ez zituen eztabaida guztiak eten, eta dispentsa mugatzeko presioak ez zuen etenik izan. Horrela, uztailaren 10eko 389/2020 AGE eman zen, PKLko 416.1.artikuluak xedatutako deklaratzeko dispentsari buruzko lege-eraldaketa oinarritu duena. Izan ere, hurrengo urtean, dispentsaren inguruko lege-eraldaketa eman zen, ekainaren 4ko 8/2021 LOaren bidez. Beraz, une horretara arte, genero-indarkeriaren eremuko dispentsari buruzko aurreko interpretazio guztiak interpretazio jurisprudenzialak ziren, baina legez arautu gabeak, eta gainera, elkarren artean guztiz bat ez zetozenak. Egia da 2009tik aurrera dispentsa ezkontideari eta antzeko afektibitate-harreman batez elkartutako pertsonari ematen zitzaiela legez. Baina, berez, ez zegoen beste mugarik haren erabilerarako, nahi zenean erabil zitekeen. Horregatik, esan dezakegu dispentsaren erregimena oso zabala zela garai hartan, gaur egungo

²⁸ AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa: *“La exención de la obligación de declarar prevista en el artículo 416.1 alcanza a las personas que están o han estado unidas por alguno de los vínculos a que se refiere el precepto. Se exceptúan: a) La declaración por hechos acaecidos con posterioridad a la disolución del matrimonio o cese definitivo de la situación análoga de afecto. b) Supuestos en que el testigo esté personado como acusación en el proceso”*

²⁹ AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko Erabakia, urtarrilaren 23koa: *“1. El acogimiento, en el momento del juicio oral, a la dispensa del deber de declarar establecida en el artículo 416 de la LECRIM, impide rescatar o valorar anteriores declaraciones del familiar-testigo aunque se hubieran efectuado con contradicción o se hubiesen efectuado con el carácter de prueba preconstituida. 2. No queda excluido de la posibilidad de acogerse a tal dispensa quien, habiendo estado constituido como acusación particular, ha cesado en esa condición”*.

erregimenarekin alderatuz, eta kolokan zegoela, ez delako behar bezala araututa egon 2021era arte.

2. DISPENTSAS IZANDAKO OZTOPO NAGUSIAK

Aurreko atalean adierazi bezala, 2021eko lege-erlaldaketa arte, deklaratzeko betebeharraren dispentsaren eremua oso zabala zen, eta horrek hainbat oztopo sortu izan ditu urteetan zehar, atal honetan aztertuko dugun bezala. Arazo horiei konponbide bat emateko, aipamen berezia egingo diogu uztailearen 10eko 389/2020 AGEari, dispentsaren egungo lege-erlaldaketa oinarritu duen jurisprudentzia baita.

2.1. Dispentsa erabiltzeko akusatuarekiko lotura izateko beharra

PKLko 416.1.artikuluak deklaratzeko betebeharraren dispentsa erabiltzeko aukera ematen dio akusatuaren ezkontideari eta ezkontzaren antzeko egitatezko harremanaren bidez lotutako pertsonari³⁰. Hala ere, afektibitate-lotura hori hausten bada, dispentsa erabiltzeko aukera dagoen eztabaidatu izan da. Zehazki, eztabaidatzen dena da afektibitate-lotura hori egon behar den gertaeren unean edo deklarazioa egiteko unean, ikusteko posible den PKLko 416.1.artikuluko dispentsari heltzea.

Dispentsa aplikatzeari buruzko irizpidea ez zen batere homogeneoa praktika judizialean. Izan ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 6/2011 Zirkularrean PKLko 416.1.artikuluaren interpretazioa aztertu zen, eta, zehazki, horren arabera, ezkongai-harremanak ez zeuden xedapenean sartuta, ezta dibortzio bidez iraungitako ezkontza-harremanak eta izatezko bikote-harremanak ere, deklaratzeko unean beren borondatez bizikidetzatza hautsi zenean. Gainera, dispentsari heldu ahal izateko, adierazi zen beharrezkoa zela inputatuaren eta biktima-lekukoaren arteko afektibitate-lotura deklaratzera deitutako unean³¹.

Azken horri dagokionez, 389/2020 AGEk azpimarratzen du Ovidoko Probintzia Auzitegiak (aurrerantzean PA) esandakoa: *“La dispensa de declarar ampara a quienes*

³⁰ PKLko 416.1.art.: *“Están dispensados de la obligación de declarar: Los parientes del procesado en líneas directa ascendente y descendente, su cónyuge o persona unida por relación de hecho análoga a la matrimonial, sus hermanos consanguíneos o uterinos y los colaterales consanguíneos hasta el segundo grado civil”.*

³¹ Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 6/2011 Zirkularra, azaroaren 2koa, Fiskaltzaren jarduera-unitate espezializaturako irizpideei buruzkoa, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez, 42 – 46.or.

*siguen manteniendo dicha relación de afectividad, no a quien han cesado en ella, por ello ampara a los matrimonios o quienes se encuentren en una situación análoga, pero no a quien se ha divorciado, porque entonces ya no existe el vínculo de familiaridad con el acusado que justifique una exención de la obligación de declarar del testigo. La causa de exención ha de concurrir en el momento de la declaración, pues es cuando comparece en el proceso como testigo, surgiendo entonces todas las obligaciones y deberes inherentes a esa condición”*³².

Horrez gain, AGk nabarmentzen du Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren (aurrerantzean JAN) adierazitakoa: *“La dispensa de declarar que dicho precepto establece lo es a favor del cónyuge o persona unida por relación de hecho análoga a la matrimonial situación que ha de concurrir en el momento de la declaración; en este caso tal como se razona en la sentencia recurrida, en el momento de la celebración del juicio oral no existía vínculo matrimonial entre el hoy recurrente y la que había sido su esposa ya que estaban divorciados y por tanto había cesado la relación de afectividad que la dispensa de declarar protege y por tanto la referida dispensa no alcanza a la que había sido esposa del condenado, aunque cuando ocurrieron los hechos ya estaban en trámite de divorcio”*³³.

Are gehiago, AGren epai gehienek eskatzen zuten lekukoa deklaratzera joaten zen unean PKLko 416.1.artikulua erabiltzea eragiten duen harremanak irautea³⁴. Eta zehazki, hori da uztailaren 10eko 389/2020 AGEak azpimarratu zuena, adieraziz dispentsari heldu ahal izateko beharrezkoa dela afektibitate-lotura izatea deklaratzeko unean³⁵.

³² 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 5. OJ.

³³ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 5. OJ.

³⁴ 164/2008 AGE, apirilaren 8koa, 3.OJ: *“Esta Sala viene asimilando, al seguir la línea marcada por varios artículos del Código Penal que cita el Tribunal a quo, la convivencia more uxorio con el matrimonio, a los efectos del art. 416.1º CP; aduciendo al respecto que la dispensa resuelve el conflicto que se le plantea al testigo entre el deber de decir la verdad y el vínculo de solidaridad y familiaridad que une al testigo con el acusado; tanto en la unión marital como en la equiparada. Pero, en consonancia con tal argumento, supedita la dispensa a que la situación de pareja persista al tiempo del juicio –así aparece claramente en la sentencia del 22/2/2007–“. Zentzu berean, 13/2009 AGE, urtarrilaren 20koa, 1.OJ: *“La jurisprudencia de esta Sala ha extendido la dispensa a las personas unidas al procesado por una relación de afectividad análoga a la del cónyuge, siguiendo el criterio de las últimas reformas legales. Pero también ha precisado que la dispensa solo es aplicable si la relación existe en el momento de prestar la declaración, pues solo en esas condiciones se produce la colisión entre el deber de declarar y las consecuencias de los vínculos familiares y de solidaridad que unen al testigo con el acusado**

³⁵ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 9. OJ: *“Ciertamente, el momento en que se ha de tomar en consideración para ver si concurre el parentesco determinante de la dispensa, es el momento en que se produce la declaración del testigo, que es cuando a éste le puede ser dispensado el deber de colaborar (art. 118 CE), mediante la prestación de su testimonio, si concurren los vínculos de parentesco que se disciplinan en el art. 416 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal”.*

Dena den, gai horri buruz, jurisprudentzia eta doktrina ez ziren ahobatezkoak. Doktrinaren arabera, zehazki, HERNÁNDEZ-en arabera, segurtasun juridikoko irizpide batek aholkatzen du dispensa erabil daitekeela afektibitate-lotura badago pertsonalaren oinarria lekuko gisa deitutako egitatea gertatu zen unean³⁶. Lotura hautsi ahal izan da, baina abstentzioaren arrazoiak, interes-gatazka osatzen dutenak, ezkontideak edo bizikideak informazio garrantzitsua ezagutu zuen unean baloratu behar dira³⁷.

Ildo beretik, 389/2020 AGEk berak azken ideia horren alde egiten du ere³⁸. Izan ere, epai horretan 292/2009 AGE nabarmentzen da, zeinak PKLko 416.1.artikuluaren aplikazio-eremua bikote ohietara hedatu zuen, esanez: *“La ruptura de la afectividad subsiguiente al cese de la convivencia no puede impedir que el llamado como testigo se acoja a la exención si la declaración compromete la intimidad familiar bajo la cual ocurrieron los hechos objeto de enjuiciamiento”*³⁹. Zentzu berean, 2013ko apirilaren 24ko Erabakiaren bidez, AGk adierazi zuen PKLko 416.1.artikuluko dispensak barne hartzen dituela ahaidetasun- edo afektibitate-lotura bidez lotuta dauden edo egon diren pertsonak, salbu eta ezkontza desegin edo antzeko egoera amaitu ondorengo egitateengatiko deklarazioa⁴⁰. Hortaz, auzitegiek eta doktrinak uste dute egitateak gertatu ziren unea dela kontuan hartu beharreko denbora-unea, deklaratzeko betebeharraren dispensa onartzea ala ez onartzea baloratzeko⁴¹.

Era berean, Fiskaltza azken pentsamolde horren alde dago. Izan ere, apirilaren 24ko AGEko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakiaren eta uztailaren 14ko 449/2015 AGEren ondoren, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Fiskal Debatuek, 2016ko Konklusioetan, PKLko 416.1.artikulua aplikatzeko afektibitate-

³⁶ HERNÁNDEZ GARCÍA, Javier, “La facultad de abstención del deber de declarar por vínculos personales con la persona acusada”, *Valoración del daño en las víctimas por violencia de género, Estudios de derecho judicial*, 139.zk., Madril, 2007, 216.or.

³⁷ Zentzu horretan, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Nueva doctrina jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en violencia de género”, *Diario La Ley*, 9713 zk., 2020.

³⁸ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 9.OJ.: *“Pero las vicisitudes posteriores que sobrevengan en el tiempo, no modifican sustancialmente tal facultad, porque la misma se proyecta sobre los hechos que se investigan (del pasado) que pesan sobre el pariente concernido y se ejerce en el momento en que se toma declaración al que incumbe la dispensa, tanto en fase de investigación preliminar como en la judicial. Y lo mismo que carecería de sentido que no tuviera tal derecho el cónyuge declarante sobre aspectos que pudiera revelar ese testigo respecto a sucesos delictivos acaecidos antes de contraer matrimonio, el divorcio posterior, como ocurre en este caso, no desvirtúa del todo tal posibilidad”*.

³⁹ 292/2009 AGE, martxoaren 26koa, 3. OJ.

⁴⁰ AGEko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa. Ildo beretik: Madrilgo 106/2022 JANE, martxoaren 16koa; 3.OJ.

⁴¹ BELTRÁN MONTOLIÚ, Ana, “Víctima de violencia de género y la dispensa del art- 416 Lecrim: Evolución jurisprudencial”, *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 19 zk., 2018, 31.or.

lotura dagoen ikusi behar den uneari dagokionez, egitateak gertatu ziren unea kontuan hartu behar zela adierazi zuten, deklaratzeko dutenean legezko edo egiteko banaketa gertatu arren⁴².

Konklusio gisa, orain arte esandakoa aintzat hartuz, esan dezakegu dispentsaren bidez bikoteen eta bikote ohien eskubidea aitortzen dela, baldin eta gertakariak bikote gisa gertatu badira, deklarazioaren edo epaiketaren unean hala ez izatea alde batera utzita. Horrek esan nahi du dispentsa baztertuta geratuko litzatekeela gertakariak bikote izan gabe gertatzen diren kasuetan. Pertsonalki, gu azkenengo pentsamolde horren alde gaude. Gertaeren unean erasotzailearekin afektibitate-harremana badu emakumeak, ulertzen dugu erasotzailearengatik dituen sentimendu horiek eragina izan dezaketela erasotzailearen aurka deklaratu ala ez erabakitzerakoan, nahiz eta deklaratzeko bere bikotekidea ez izan.

2.2. Lekuko-biktimaren kalitatea

389/2020 AGEk ezarri du ez dela gauza bera lekukoaren estatutu juridikoa eta lekuko-biktima eta -salatzailearena, lehenengo ez baita gertaeren biktima ezta salatzailea izan, eta, horregatik, ez du inolako harremanik ikertutako delituarekin. PKLko 416.1.artikuluko dispentsa lehenengo lekukoarentzat pentsatuta dago⁴³.

Hau da, AGk uste du dispentsak oinarritzat duela gertaeren biktima ez den beste lekukoa, zeinak honako eztabaida duen: kausan agerian jarri beharra senidea kaltetu dezaketen xehetasunak, haren ahaidetasun-loturak entzungor eginez⁴⁴. Hala, PKLko 416.artikuluak EKren 24.artikuluaren aldarrikatutako konstituzio-mailako eskubide bat garatzen du zigor-arloko prozesuaren esparruan. Prozesuko alderdia ez denari aitortutako eskubide prozesala da: hirugarren batek deklaraziorik ez egiteko duen eskubidea. Akusatuak ez du eskubiderik bere senideek deklaraziorik ez egiteko; aitzitik, senideek eskubidea dute ez deklaratzeko⁴⁵.

⁴² Horrela ulertzen dute: FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2016”, Madrid 7 y 8 de noviembre de 2016, 13 – 14 or. Honekin lotuta: AGEko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa; 449/2015 AGE, uztailaren 14koa, 1.OJ.

⁴³ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 6. OJ.

⁴⁴ Zentzu horretan, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Nueva doctrina jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en violencia de género”, *Diario La Ley*, 9713 zk., 2020.

⁴⁵ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 6. OJ. Ildo beretik: 2005/2018 AGE, apirilaren 25ekoa, 2.OJ.

Dena den, emakumeak, egitateen lekukoa eta biktima denez aldi berean, dispentsarako eskubidea izaten du, lekuko gisa duen izaeragatik, PKLko 416.1.artikuluari ikus dezakegun bezala. Ildo horretatik, genero-indarkerian gertakarien lekuko bakarria biktima bera izaten denez, hau da, lekuko-biktima baten aurrean gaudenez, erasotzailearen zigorgabetasuna saihesteko⁴⁶, eta erabateko segurtasun juridikoa bermatzeko, eta biktimen babes-esparrua zabaltzeko⁴⁷, badaude pentsatzen dutenak dispentsa ez litzaikeela aplikatu behar biktima edo kaltetun diren lekukoei. Eta zehazki, 389/2020 AGEk jarraitutako ildo dela eta, antzeman dezakegu azkenean dispentsarako eskubidea ukatuko zaiela biktima diren lekukoei⁴⁸.

Genero-indarkerian, biktima den emakumea garrantzi berezia duen lekukoa da, delituaren kargurako froga zuzen bakarria baita; izan ere, sarritan, gertaerak intimitatean gertatzen dira, eta gertatutakoa azal dezaketen beste zuzeneko lekukorik gabe, biktimaz eta erasotzaileaz gain. Horregatik, askotan, biktimaren testigantza ez edukitzeak biktimaren zigorgabetasuna ekarriko du berekin. Kasu horietan, biktima egoera ahulean dago, eta askotan dispentsari heltzen dio eta prozesutik ihes egiten du. Egoera horrek, azkenean, baliabide prozesal hori erasotzailearen zerbitzurako menderatze-tresna berri bihurtzen du, lekukoa gertakarien biktima denean.⁴⁹

Hori dela eta, biktimei babes-estatutu berezia aitortu behar zaie, hain zuzen ere, kalteberatasuna kontuan hartuta. Gure ustez, biktima salatzaileek Biktimei Laguntzeko Bulegoetan informazio eta aholkularitza egokia lortzeko mekanismoa hobetu behar da, AGk dioen bezala⁵⁰; horrela, emakumeak hasieratik ezagutuko ditu bere posizio prozesalaren inguruko ondorioak eta egoerari aurre egiteko dituen aukerak. Hala ere, bulego horiek gure herrialdeko hiri handi batzuetan baino ez daude, baina ez herriko

⁴⁶ Ideia horren haritik: CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 180.or.

⁴⁷ MAGRO SERVET, Vicente, “La imposibilidad de conceder a las víctimas de la Violencia de Género la dispensa de declarar contra sus agresores (art.416 LECrim): ¿Es necesaria una reforma legal?”, *Diario La Ley*, 6333.zk., 2005, 12.or.

⁴⁸ FRANCO SERRANO, María Teresa, “La declaración testifical de parientes. La dispensa a declarar de la víctima del delito. Tratamiento jurisprudencial”, *Diario La Ley*, 9717.zk., 2020, 7.or.

⁴⁹ Ideia horren haritik: CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 179-180.or.

⁵⁰ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 12. OJ.

barruti judizialean; beraz, mekanismo hori hobetzen ez bada, aurretiazko laguntza hori ezin izango da eman kasuen % 90ean⁵¹.

2.3. Emakumearen deklarazioa balio frogagarri gisa

Oro har, genero-indarkeriako delitu-egitateak frogatzeko frogabide bakarra biktimaren deklarazioa da, intimitatean gertatu ohi diren delituak direlako, eta, askotan, adierazpen hori deklaratzeko betebeharretik salbuetsita geratzen da. Hortaz, zailtasun handiak agertzen dira gertakariak frogatzeko, biktimak deklaratzeko ez badu⁵².

Deklaratzea erabakitzen duen kasurako, logikoa dirudi garrantzi berezia ematea eta kargu-froga nahikotzat jotzea egindako deklarazioa. Hala ere, oso zaila izan da froga hori jurisprudenzian zehaztea. 2002ko urtarrilaren 28ko AGEN aurkitu ditugu lehen erantzunak⁵³, eta froga hori froga erreal, baliozko, zilegi eta nahikotzat jotzeaz gain⁵⁴, beste irizpide batzuk ezarri ziren bertan. Lehenik eta behin, jurisprudenziak uste du ez dela sinesgarritasun subjektiborik egon behar; hau da, biktimaren deklarazioaren egiazkotasuna zalantzan jar dezaketen gezurrezko arrazoirik dagoen egiaztatu behar da (ezinikusia, etsaitasuna, mendekua...). Bigarrenik, beharrezkoa da akusazioa iraunkorra eta jarraitua izatea, kontakizun nagusian inolako anbiguotasunik eta kontraesanik izan gabe⁵⁵. Azkenik, lekukotzaren egiantza bilatzen da; hots, kontatutakoa bat etortzea beste adierazpen batzuekin, prozesuaren berrespen periferikoetatik abiatuta, hala nola, auzitegiko medikuen txostenak, txosten psikologikoak, lekukoak, parteak, etab⁵⁶.

⁵¹ LÓPEZ CHACÓN, María Jesús, “Reflexiones sobre la STS 389/2020, de 10 de julio, en cuanto a la dispensa de la obligación de declarar de la víctima de un delito de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9729.zk., 2020.

⁵² Zentzu horretan, GONZÁLEZ MONJE, Alicia, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 6.or.

⁵³ 57/2002 AGE, urtarrilaren 28koa, 3.OJ. Ildo beretik: 1505/2003 AGE, azaroaren 13koa, 2.OJ.

⁵⁴ SIBONY Ruby; SERRANO OCHOA María Ángeles; REINA Olga, “La prueba y el derecho a la dispensa del deber de declarar por la testigo-víctima en los procedimientos de violencia de género”, *Noticias Jurídicas*, 2011. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/4652-la-prueba-y-el-derecho-a-la-dispensa-del-deber-de-declarar-por-la-testigo-victima-en-los-procedimientos-de-violencia-de-genero/> [azken kontsulta: 2022/05/07].

⁵⁵ 57/2002 AGE, urtarrilaren 28koa, 3.OJ. Horrela ulertzen du doktrinak ere, besteak beste. SIBONY Ruby; SERRANO OCHOA María Ángeles; REINA Olga, “La prueba y el derecho a la dispensa del deber de declarar por la testigo-víctima en los procedimientos de violencia de género”, *Noticias Jurídicas*, 2011. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/4652-la-prueba-y-el-derecho-a-la-dispensa-del-deber-de-declarar-por-la-testigo-victima-en-los-procedimientos-de-violencia-de-genero/> [azken kontsulta: 2022/05/07].

⁵⁶ 57/2002 AGE, urtarrilaren 28koa, 3.OJ. Ildo beretik: 1505/2003 AGE, azaroaren 13koa, 2.OJ.

Denborak aurrera egin ahala, jarraibide horiek eguneratu eta osatu egin dira. AGk zenbait irizpide zerrendatzen ditu erasotzailearen errugabetasun-presuntzioa indargabetzea baloratzeko, eta indar handiagoa ematen dio emakume biktimak kontatutakoari, 119/2019 AGEN ikus dezakegun bezala⁵⁷.

Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren (aurrerantzean KA) jurisprudentziaren arabera, biktimaren deklarazioak erruduntasun-balioa du, akusazioa baliatu nahi duen froga bakarra izan arren⁵⁸. Beraz, KAren eta AGren irizpidea da biktimaren deklarazioak berez duela balio nahikoa errugabetasun-presuntzio konstituzionalaren printzipioa indargabetzeko lekuko frogaren gisa, betiere behar bezalako bermeekin egiten bada. Hala ere, adierazi dugun bezala, erasotzailearen errugabetasun-presuntzioaren aurrean biktimaren deklarazioaren sendotasunaren ideia hori nabarmen murrizten da, dispentsaren mekanismo prozesala dela eta.

2.4. Instrukzioan egindako deklarazioaren balioa

Genero-indarkeriaren arloan, jatorrizko PKLko 416.1.artikuluak bakarrik xedatzen zuen dispentsa zegokiela akusatuaren ezkontideari eta ezkontzaren antzeko egitatezko harremanaren bidez lotutako pertsonari. Baina dispentsa erabiltzeko aukera zabala zuten horiek, inolako muga edo salbuespenik gabe.

Hori dela eta, arazo handi bat sortu zen arauketa zaharraren haritik, hain zuzen: instrukzioan egindako deklarazioaren balioaren interpretazioa. Lehen, instrukzio-fasean emakumeak deklaratu arren, geroago ahozko epaiketan dispentsari heldu ziezaiokeen, bere eskubidea baitzen eta ez baitzegoen hura debekatzen zuen xedapenik⁵⁹, nahiz eta

⁵⁷ 119/2019 AGE, martxoaren 6koa, 3.OJ. Ildo beretik: 282/2018 AGE, ekainaren 13koa, 2.OJ: *“En estos casos, la víctima se encuentra procesalmente en la situación de testigo, pero a diferencia del resto de testigos, es víctima y ello debería tener un cierto reflejo diferenciador desde el punto de vista de los medios de prueba, ya que la introducción de la posición de la víctima en la categoría de mero testigo desnaturaliza la verdadera posición en el proceso penal de la víctima, que no es tan solo quien "ha visto" un hecho y puede testificar sobre él, sino que lo es quien es el sujeto pasivo del delito y en su categorización probatoria está en un grado mayor que el mero testigo ajeno y externo al hecho, como mero perceptor visual de lo que ha ocurrido”*.

⁵⁸ 365/2022 AGE, apirilaren 8koa, 2.OJ; 355/2019 AGE, uztailaren 10ekoa, 1.OJ; 310/2019 AGE, ekainaren 13koa, 1.OJ; 553/2014 AGE, ekainaren 30ekoa, 2.OJ; 725/2007 AGE, irailaren 13koa, 2.OJ. Zentzu berean: 195/2002 KAE, urriaren 28koa, 4.OJ; 64/1994 KAE, otsailaren 28koa, 5.OJ; 229/1991 KAE, azaroaren 28koa, 4.OJ; 173/1990 KAE, azaroaren 12koa, 3.OJ.

⁵⁹ Ideia horren haritik, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 189.or. Era berean, AGEko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko Erabakia, urtarrilaren 23koa.

akusazio partikular gisa agertu, horren aurkako iritzia egon arren. Orduan, instrukzioan egindako deklarazioak aintzat hartu behar zen ala ez? Hori da arazoa.

Alde batetik, aintzat hartu behar dugu biktimari dispentsari buruz informatzeko betebeharra dagoela, PKLko 416.1.artikuluak bere jatorrizko idazketan jada xedatzen zuen bezala⁶⁰. Ildo horretatik, biktima-lekukoari instrukzio-fasean emakumeari dispentsarako eskubidea duela ohartarazita zein ez ohartarazita, emakumeak deklaratea erabakitzen bazuen, eta ahozko epaiketan dispentsari heltzen bazion, lehen deklarazio hark ez zuen baliorik, eta ezinezkoa zen deklarazio hori ahozko epaiketan sartzea PKLko 730. eta 714.artikuluen bidez⁶¹. Beraz, ohartarazpena egin zein ez, ondorioa berdina da: instrukzioan egindako deklarazioa ez da aintzat hartzen ahozko epaiketan.

Bestalde, emakumeak, dispentsaren berri behar bezala jaso ondoren, borondatez deklaratu bazuen instrukzio-fasean, eta, ondoren, ahozko epaiketan zuzendu egiten bazuen berme guztiekin eman zen lehen deklarazioa, kontraesan jar zitezkeen bi deklarazio horiek, PKLko 714. artikuluekin bat etorritik; horrela, Auzitegiak horietako bakoitzak merezi duen sinesgarritasuna haztatu ahal izango zuen⁶². Argudioa honetan oinarritzen da: akusatuek ez deklaratzeko duen eskubidea ez badu eragozten instrukzioan deklarazioak baloratzea, oinarritzeko eskubidea izanik, dispentsa erabiltzeko ez die baliorik kentzen eskubide hori bera ohartarazita aurretik egindako deklarazioei,

⁶⁰ PKLko 416.1.artikulua 1997ko jatorrizko idazketa: *“El Juez instructor advertirá al testigo que se halle comprendido en el párrafo anterior que no tiene obligación de declarar en contra del procesado, pero que puede hacer las manifestaciones que considere oportunas, consignándose la contestación que diere a esta advertencia”*.

⁶¹ Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 6/2011 Zirkularra, azaroaren 2koa, Fiskaltzaren jardura-unitate espezializaturako irizpideei buruzkoa, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez, 48-49.or. Zentzu berean: 310/2021 AGE, apirilaren 12koa, 2.OJ; 752/2021 AGE, urriaren 6koa, 4.OJ; Albaceteko 382/2021 PAE, abenduaren 15koa, 4.OJ; 160/2010 AGE, martxoaren 5koa, 3. OJ.; 459/2010 AGE, maiatzaren 14koa, 3.OJ; 385/2007 AGE, maiatzaren 10koa, 3. OJ.

PKLko 730.art.: *“1. Podrán también leerse o reproducirse a instancia de cualquiera de las partes las diligencias practicadas en el sumario, que, por causas independientes de la voluntad de aquellas, no puedan ser reproducidas en el juicio oral. 2. A instancia de cualquiera de las partes, se podrá reproducir la grabación audiovisual de la declaración de la víctima o testigo practicada como prueba preconstituida durante la fase de instrucción conforme a lo dispuesto en el artículo 449 bis”*.

PKLko 714.art.: *“Cuando la declaración del testigo en el juicio oral no sea conforme en lo sustancial con la prestada en el sumario, podrá pedirse la lectura de ésta por cualquiera de las partes. Después de leída, el presidente invitará al testigo a que explique la diferencia o contradicción que entre sus declaraciones se observe”*.

⁶² Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 6/2011 Zirkularra, azaroaren 2koa, Fiskaltzaren jardura-unitate espezializaturako irizpideei buruzkoa, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez, 49.or. Zentzu berean: 952/2010 AGE, azaroaren 3koa, 1.OJ.

betiere legezko bermeak zorrotz betetzeko baldintzetan egin badira eta ahozko epaiketan sartu badira kontraesanak izateko aukerarekin⁶³.

Hala ere, badaude azken horrekin ados ez daudenak. Besteak beste, RAQUEL CASTILLEJO aurreko paragrafoan aipatutako ideiarene aurka dago, AGren Bigarren Salaren Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko urtarrilaren 23ko Erabakian oinarrituz, zeinarene arabera: *“El acogimiento, en el momento del juicio oral, a la dispensa del deber de declarar establecida en el artículo 416 de la LECRIM, impide rescatar o valorar anteriores declaraciones del familiar-testigo aunque se hubieran efectuado con contradicción o se hubiesen efectuado con el carácter de prueba preconstituida”*⁶⁴. Hortaz, horrene arabera, ahozko epaiketaren unean deklaratzeko betebeharraren dispensa onartzeak lekuko-senidearen aurreko deklarazioak baloratzea eragozten du.

Orduan, ikus dezakegu gehiengoaren pentsamendua dela ahozko epaiketan dispensa erabiltzeak eragozten duela instrukzioan emandako aurreko adierazpenak erreskatatzea edo baloratzea. Dena den, ni ez nago azken ideia horrene alde, horrek kontraesanean jartzen baitu jada deklaraturakoa. Gure ustez, emakumeak instrukzio-fasean egindako deklarazioak aintzat hartu behar dira, emakumeak ahozko epaiketan ez deklaratzeko edo bere deklarazioa aldatzea erabaki arren. Egia da kontutan hartu behar dela emakumearen egoera psikikoa momentu horretan berezia dela, pairatu dituen gertakariengatik. Baina behin deklaraturakoa, erasotzailearen aurkako prozesuari hasiera ematen zaio, haren aurkako akusazioak egin direlako. Orduan, gero dispensari heltzen bazaio edo lehen deklarazioaren edukia aldatzen bada eta aurretiko deklarazio hori aintzat hartzen ez bada, askotan horrek suposatuko du erasotzailearen absolutzioa, biktima babesgabeziako egoera batean utziz, eta gure ustez hori ez da bidea justizia egiteko eta emakumea babesteko. Lehen deklarazio horiek aintzat hartzen ez badira, emakumea erasotua izateko arriskuan egongo da berriro, eta beldurrarekin bizi beharko du bere bizitza osoan zehar, eta horrek ez luke horrela izan beharko.

⁶³ Ideia horrene haritik, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 198.or.

⁶⁴ CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 204.or. Horrene oinarri gisa: AGren Bigarren Salaren Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko Erabakia, urtarrilaren 23koa.

Hortaz, ikus dezakegu kontraesanak egon direla instrukzioan egindako deklarazioaren balioa interpretatzeko orduan. Hori dela eta, uste dugu konponbiderik hoberena litzatekeela emakumeak instrukzioan egindako deklarazioa ahozko epaiketan sartzea aurretiazko froga gisa, PKLko 730.artikuluaren bidez. Horrek saihestuko luke biktima behin eta berriz deklaratzearen ondoriozko birbiktimizazioa, eta, horrela, saihestu egingo litzateke biktimek esperientzia traumatikoak izatea ikerketa-prozesuetan eta prozesu judizialean⁶⁵. Zehazki, azkenengo puntuan sakonduko dugu ideia honetan.

2.5. Genero-indarkeriaren biktima den emakumearen salaketa

Lekuko-biktimaren atalean esandakoaren haritik, oinarririk ez duten kasuetan ezin da dispensa aplikatu, eta hori gertatzen da lekuko salatzailea eta biktima denean; izan ere, kasu horretan, arrazoi osoa galtzen du erasotzailearen aurrean deklaratzeko dispensa emateak, bere delitu-atribuzioaren bidez abiarazi baita zigor-prozesua⁶⁶.

Beraz, dispensa ez da bateragarria salatzaileak gertakarien biktima gisa duen jarrerarekin⁶⁷. Eta hori askoz argiago ikusten da genero-indarkeriaren arloan, emakumeak bere bikotekidea salatzen duenean ezin baitu deklaratzeko betebeharretik salbuetsita egon, aitorten hori bateraezina baita formalizatu duen salaketarekin⁶⁸. Gainera, delitu batzuetan, ezinbestekoa da haien ekarpen prozesala, prozesua aktibatu ahal izateko. Orduan, salatzaileak haren aurka deklaratzeari uko egin diezaion nahi izatea, hasierako salaketaren esanahia bera edukirik gabe uztea da⁶⁹.

Ildo horretan, ekainaren 25eko 400/2015 AGEk, honako hau adierazten zuen: *“Cuando la propia víctima formaliza una denuncia en forma espontánea y para obtener protección personal, no es aplicable el art. 416.1º LECr., que contiene una causa de justificación para aquellos que nieguen su testimonio respecto de hechos que se imputan a personas con las que está vinculados parentalmente, pero de cuyos hechos no son víctimas”*⁷⁰. Artikulu horrek uko egin dakioken eskubidea ezartzen du lekukoan

⁶⁵ ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco, “Protagonismo probatorio de la víctima en el proceso penal inconvenientes y ¿posibles soluciones? (al hilo del Convenio de Estambul)”, *Revista Boliviana de Derecho*, 33.zk., 2022, 346.or.

⁶⁶ Zentzu horretan, CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Nueva doctrina jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en violencia de género”, *Diario La Ley*, 9713 zk., 2020.

⁶⁷ 94/2010 KAE, azaroaren 15ekoa, 3.OJ. Zentzu berean: 557/2016 AGE, ekainaren 23koa, 1.OJ.

⁶⁸ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 8. OJ. Ildo beretik: Madrilgo 625/2021 PAE, abenduaren 22koa, 1.OJ.

⁶⁹ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 11. OJ.

⁷⁰ 400/2015 AGE, ekainaren 25ekoa, 1 OJ.

mesedetan, baina ez salatzaile espontaneoen mesedetan, kalte egin dieten eta babes bila poliziarengana jotzen duten egitateei dagokienez.

Are gehiago, gogoratu beharra dago biktimak ez duela salaketa jartzeko betebeharririk PKLko 261.1.artikuluaren arabera, salbuespenak salbuespen⁷¹. Orduan, AGren esanetan, biktimak erasotzailea salatzea erabakitzen duenean, deklaratzeko betebeharraren eta lekukoa akusatuekin lotzen duten familia- eta elkartasun-loturen ondorioen artean talka egiteko lekurik ez dagoelako da. Hau da, erasotzailea salatzeak esan nahi du biktimak dagoeneko konpondu duela erasotzailearekin zuen loturatik eratorritako gatazka⁷². Beraz, urrats hori egin ondoren, ez du zentzurik deklaratzeko dispensa ematea erasotzailea salatzeako deklaratzeko duenari.

Hala ere, gaur egun eztabaida hori ez da konpondu. Egia da ekainaren 4ko 8/2021 LOk PKLko 261.artikuluaren sartutako modifikazioa dela eta, badaude supostu batzuk non salatzeako betebeharra egongo den; hala ere, PKLko 416.1.artikuluaren sartutako salbuespenen artean ez da jasotzen deklaratzeko dispensa ezin dela erabili emakumeak salaketa jartzen duen kasuetan. Ondorioz, eztabaida hori irekita dago oraindik.

2.6. Biktima-salatzailea akusazio partikular gisa aurkeztea

Dispentsaren erregimena mugatu nahian, 389/2020 AGEren arabera, biktimek, akusazio partikular gisa eratu ondoren, ez dute berreskuratzen beren bikotekidearen aurka deklaratzeko dispensa-eskubidea –PKLko 416.1.artikuluak–, egoera prozesal horretan aritzeari uko egiten badiote ere. AGk aldatu egin du orain arte zuen jurisprudentzia, eta uste du horrela babesten dituela genero-indarkeriaren biktimak erasotzailearen balizko hertsapenetatik haren aurka deklaratu ez dezaten salaketa jarri ondoren⁷³.

⁷¹ PKLko 261.1.art: “*Tampoco estarán obligados a denunciar: 1. Quien sea cónyuge del delincuente no separado legalmente o de hecho o la persona que conviva con él en análoga relación de afectividad. Esta disposición no será aplicable cuando se trate de un delito contra la vida, de un delito de homicidio, de un delito de lesiones de los artículos 149 y 150 del Código Penal, de un delito de maltrato habitual previsto en el artículo 173.2 del Código Penal, de un delito contra la libertad o contra la libertad e indemnidad sexual o de un delito de trata de seres humanos y la víctima del delito sea una persona menor de edad o una persona con discapacidad necesitada de especial protección*”, ekainaren 4ko 8/2021 Loren modifikazioa.

⁷² 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 11. OJ.

⁷³ CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, “El Tribunal Supremo fija que la víctima constituida en acusación particular en un proceso judicial no recupera el derecho a la dispensa de declarar si renuncia a esa posición procesal”, *Poder Judicial España, C.G.P.J - Noticias Judiciales*, 2020.

Zehazki, AGk azaroaren 15eko 94/2010 KAE 94/2010 hartzen du horren oinarritzat. KAE horrek dispentsaren zentzugabekeriari eusten dio senarraren aurkako akusazioaren sustatzailea emakumea denean, auzian akusazio partikular gisa aurkeztu delako eta berari zigor larriak ezartzea eskatu diolako; izan ere: *“pues si su dilema moral le hubiera imposibilitado perjudicar con sus acciones a su marido no habría desplegado contra él la concluyente actividad procesal reveladora de una, al menos, implícita renuncia a la dispensa que le confería el art. 416 LECrim”*⁷⁴.

389/2020 AGEk AGko 2013ko Erabakiaren alde egin du, eta honako hau adierazi du: *“Si la persona denunciante que se constituye en acusación particular no ostenta la facultad de dispensa, conforme hemos declarado en nuestros Acuerdos Plenarios, su estatuto tiene que ser el mismo al abandonar tal posición, sin que exista fundamento para que renazca un derecho que había sido renunciado”*⁷⁵. Horixe adierazten zuen uztailearen 14ko 449/2015 AGEk, zeinaren arabera dispentsa-eskubidea behin betiko bertan behera geratzen den akusazio partikular gisa aurkeztean⁷⁶. Izan ere, dispentsa-eskubidea erabiltzeari uko egitean, lehenik salaketa jartzeagatik eta gero akusazio partikular bihurtuz, horren funtsa osatzen duen gatazka ebatzi ondoren, ez dago hura berreskuratzeko inolako arrazoirik, eta hori, bide batez, edozein eskubideri uko egitea aldarrikatzen duen mekanismoa da⁷⁷.

AGk biktimaren babes egokian oinarritzen du bere erabakia⁷⁸, dispentsaren oinarria lekuko ahaideak gatazka ebaztea baita. Lekuko horrek gatazka hori konpondu ondoren, lehenik salatuz eta gero akusazio partikular gisa eratuz, erakutsi du uko egiten diola legeak eskaintzen dion dispentsari. Gero horrelako posizio prozesala izateari uzten badio, ez du berreskuratu behar ukatu duen eskubide bat, zeren mekanismo horrek ez baitu inolako oinarririk, eta elikatzen duen gauza bakarra hertsapena da⁷⁹.

⁷⁴ 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, 11. OJ. Horrekin lotuta: 94/2010 KAE, azaroaren 15ekoa, 6.OJ.

⁷⁵ 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, 11. OJ.

⁷⁶ 449/2015 AGE, uztailearen 14koa, 1.OJ. Zentzu berean: 209/2017 AGE, martxoaren 28koa, 5.OJ.

⁷⁷ 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, 11. OJ. Zentzu berean: Palma de Mallorcako 16/2022 PAE, urtarrilaren 14koa, 1.OJ.

⁷⁸ 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, 11. OJ: *“De esta forma, el testigo víctima, no puede ser coaccionado en su actuación posterior al prestar testimonio, para que se acoja a la dispensa, siendo libre de declarar con arreglo a su estatuto de testigo. Recordemos que el art. 715 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal proclama que la única declaración que ha de ser tomada en consideración es la del juicio oral, a efectos del delito de falso testimonio, por lo que, en el caso de testigos víctimas, deberá velarse por su completo asesoramiento acerca su estatuto como testigo o como parte acusadora, de acuerdo con las previsiones del Estatuto de la Víctima del Delito, lo que habitualmente se verificará en las Oficinas de Atención a las Víctimas”*.

⁷⁹ 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, 11. OJ.

Hala ere, badaude argudio horien aurka daudenak. Batetik, badaude pentsatzen dutenak jurisprudenzia-aldaketa horrekin, biktimei deklaratzera behartzen zaiela⁸⁰, haien egoera psikikoan erreparatu gabe. Eta biktimei deklaratzera behartzeak, askotan, bere erantzunak ez oso argiak izatera garamatza, aurrez emandakoen guztiz aurkakoak ez badira ere, eta, ondorioz, lekukotza faltsuaren delituaren aurrean egon daiteke⁸¹. Bestetik, magistratu batzuen boto partikularrak daude, zeinek funtsezko bi ideia dituzte ardatz: deklaratzeko betebeharretik salbuesteko eskubidearen izaera konstituzionala eta eskubide horri uko egitearen irismena⁸².

Horren haritik, ANTONIO DEL MORAL Magistratua dago, bi gauza desberdin nahasten ari direla uste duena. Haren ustez, gauza bat da akusazio partikular gisa eratzten den biktimek dispensa erabili ezin izatea, kasu horretan bateraezinak baitira bi jarrera prozesalak, eta oso gauza desberdina da jada posizio prozesal hori ez duenari inolako bateraezintasunik ekartzea. Delituen aurrean, lekukoak prozesuan parte hartzen du prozesu horri dagozkion eskubide guztiekin, besteak beste, erruztatutako ahaidearen aurka ez deklaratzeko. Bestalde, lekuko hori ere delituaren biktimea da, eta horrek aukera ematen dio akusazio partikular gisa aurkezteko, eta jarrera prozesal hori ere eskubide bat da. Jarrera bat eta bestea ez dira bateraezinak; beraz, logikoena litzateke ulertzea akusazio partikularraren egoera galtzeak ez diola eragiten oraindik lekuko den biktimari, eta, beraz, biktimari datzekion eskubideei eutsi beharko diela⁸³.

Argudio horren oinarria DE PORRES Magistratuak adierazitako ideian dago; izan ere, horren arabera, dispensarako eskubidea ez da behin bakarrik sortzen, lekukoa prozeduraren fase guztietan deklaratzera deitzen den bakoitzean baizik, eta ezin da onartu funtsezko eskubide bati prebentzioz uko egitea⁸⁴.

⁸⁰ GERAS MONTILLA, Luis, “La dispensa a declarar contra los parientes tras la sentencia del Tribunal Supremo 389/20 de 10 de julio”, *Noticias Jurídicas*, 2021. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/16108-la-dispensa-a-declarar-contra-los-parientes-tras-la-sentencia-del-tribunal-supremo-389-20-de-10-de-julio/> [azken kontsulta: 2022/05/08].

⁸¹ LÓPEZ CHACÓN, María Jesús, “Reflexiones sobre la STS 389/2020, de 10 de julio, en cuanto a la dispensa de la obligación de declarar de la víctima de un delito de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9729.zk., 2020.

⁸² GONZÁLEZ MONJE, Aliciak, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 20.or.

⁸³ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, Boto Partikularra, DEL MORAL, Antonio.

⁸⁴ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, Boto Partikularra, DE PORRES ORTÍZ DE URBINA, Eduardo.

Beraz, ikus dezakegu 389/2020 AGEren boto partikularrek AGeko 2018ko Erabakiaren alde egiten dutela; izan ere, bertan adierazi zen akusazio partikular gisa aurkeztutako biktimak dispentsarako eskubidea berreskuratzen duela izaera horri uko egin arren⁸⁵. Hala ere, interpretazio horiek ez dute arrakastarik izan, lege-eraldaketaren atalean ikusiko dugun moduan⁸⁶.

2.7. Biktimari dispentsari buruz informatzeko betebeharra

Jurisprudentziak adierazi duen bezala, lekuko biktimari jakinarazi beharko zaio, berariaz eta argi, deklaratzeko betebeharretik salbuetsita dagoela, hala dagokionean, prozesuko fase guzti-guztietan, eta betiere egoitza judizialean deklaratzeko deitzen badute. Bestela, xedatutakoa errespetatu gabe lortutako deklarazio guztiak baliogabetzat joko dira. Beraz, lekukoari eskubide horren berri eta aholkularitza egokia eman behar zaio, horren arabera eskubide hori erabili ala ez askatasunez erabaki dezan⁸⁷.

Zehazki, PKLko 416.1.artikuluaren arabera, instrukzio-epaileak lekukoari ohartaraziko dio ez duela auzipetuaren aurka deklaratzeko betebeharririk, baina egokitzen jotzen dituen adierazpenak egin ditzakeela, eta Justizia Administrazioaren letraduak ohartarazpen horri ematen dion erantzuna jasoko du. Hortik uler daiteke lekuko gisa agertzen diren pertsonen bakarririk eman behar zaiela eskubide horren berri. Hala ere, adierazi izan da, genero-indarkeriako kasuetan, prozesuan akusazio partikular gisa aurkeztutako emakume biktimei ez zaiela ohartarazi behar dispentsarako eskubidea dutela, prozesuan pertsonatzeagatik⁸⁸.

Idea horren oinarri gisa AGren 2013ko apirilaren 24ko Erabakia dago, bertan adierazi baitzen deklaratzeko betebeharretik salbuetsita daudela PKLko 416.1.artikulu

⁸⁵ AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko Erabakia, urtarrilaren 23koa; 205/2018 AGE, apirilaren 25koa, 2.OJ.

⁸⁶ PKLko 416.1.4.art.: “*Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación cuando el testigo esté o haya estado personado en el procedimiento como acusación particular*”, ekainaren 4ko 8/2021 LOren modifikazioa.

⁸⁷ 485/2021 AGE, ekainaren 3koa, 2.OJ; 752/2021 AGE, urriaren 6koa, 4.OJ; 49/2018 AGE, urtarrilaren 30koa, 2.OJ. Antzeko adierazpenak: 160/2010 AGE, martxoaren 5koa, 3.OJ; 294/2009 AGE, urtarrilaren 28koa, 2.OJ; 385/2007 AGE, maiatzaren 10ekoa 3.OJ; 662/2001 AGE, apirilaren 6koa, 3.OJ.

⁸⁸ 94/2010 KAE, azaroaren 15ekoa, 5 OJ. Zentzu berean: 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 8.OJ; 449/2015 AGE, uztailaren 14koa, 1.OJ. Horren aurka, FLECHA MUÑOZ, Juan Antonio, “La STS 389/2020, de 10 de julio: el antagonismo definitivo entre el derecho a la dispensa del artículo 416.1 LECRIM y el ejercicio de la acusación particular”, *Diario La Ley*, 9741.zk., 2020, 7.or.: “*La renuncia del derecho de la dispensa del deber de declarar, sólo podrá producirse cuando previamente se conozca que se es acreedor del mismo*”.

aipatzen diren loturetako baten bidez elkartuta dauden edo egon diren pertsonak, lekukoa prozesuan akusazio gisa aurkezten den kasuetan izan ezik⁸⁹. Beraz, akusazio partikularra duten emakume biktimak dispentsari heltzeko aukeratik kanpo uzteak, horri buruz ohartarazi beharrik ez izatea dakar berekin.

Hala ere, aipatutako interpretazio jurisprudenzialen ondorioz, hau da, akusazio partikular gisa aurkezteak une horretatik bertatik eta prozesu osoan zehar dispentsari uko egitea dakarrenez⁹⁰, zenbaitek uste dute lekukoari etorkizuneko eskubide bati uko egiten ari zaiola jakinarazteko betebeharrak are garrantzi handiagoa hartzen duela, eskubide horri uko egiteak dakartzan ondorioengatik⁹¹. Era berean, AGk behin eta berriz adierazi du dispentsaren ohartarazpena soilik egingo dela emakumea lekuko gisa deklaratzera deitu dutenean, eta, beraz, ez dela egingo berezko salaketa bada, hau da, emakumea agintariengana biktima gisa salaketa jartzera joaten denean⁹².

⁸⁹ AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa; *“La exención de la obligación de declarar prevista en el art. 416.1 LECRIM alcanza a las personas que están o han estado unidas por alguno de los vínculos a que se refiere el precepto. Se exceptúan: b) Supuestos en que el testigo esté personado como acusación en el proceso”*.

⁹⁰ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 11. OJ. Horrekin lotuta: 94/2010 KAE, azaroaren 15ekoa, 6.OJ.

⁹¹ GONZÁLEZ MONJE, Alicia, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.), DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021, 22.-23.or.

⁹² 94/2010 KAE, azaroaren 15ekoa, 4.OJ. Zentzu berean: 400/2015 AGE, ekainaren 25ekoa, 1.OJ; 1010/2012 AGE, abenduaren 21ekoa, 3.OJ; 625/2007 AGE, uztailaren 12koa 1.OJ; 1225/2004 AGE, urriaren 27koa, 3.OJ.

IV.- DISPENTSAREN EGUNGO LEGE-ERALDAKETA

1. LEGE-ERALDAKETAREN HELBURU NAGUSIAK

Hain zuzen, ekainaren 4ko 8/2021 LOren helburu nagusia da haurrak eta nerabeak babestea indarkeriaren aurrean⁹³. Lege honek adingabeak babesteko beharrari erantzuten dio, botere publikoen lehentasunezko betebeharrak gisa, EKko 39.artikuluaren aitortua⁹⁴.

Besteak beste, 8/2021 LO berriki onartu eta indarrean jartzeak ekarri du gure PKLko xedapen eztabaidatuenetako bat aldatzea: deklaratzeko betebeharraren dispensa. Lege honek dispensa aldatzen du “zigor-prozesuan babes berezia behar duten adingabeak edo desgaituak babesteko”⁹⁵.

Hala ere, nahikoa da legea hitzez hitz irakurtzea, erreformaren irismena legegileak adierazten duena baino zabalagoa dela ohartzeko, aurreratu dugun bezala. Izan ere, erreforma horrek oso eragin handia izango du genero-indarkeriako kasuetan, eremu horretan arazo asko sortu izan baitira emakumearen deklaratzeko betebeharren dispensaren inguruan⁹⁶, arestian aztertu dugun bezala.

Ondorioz, gure ustez, ekainaren 4ko 8/2021 LOk deklaratu beharreko dispensaren erreforma sartu behar zuen, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak ere babesteko, eta ez bakarrik adingabeak eta desgaituak; izan ere, emakume horiek biktima zuzenak dira, kalteberatasun-egoera berezian daude eta babesa behar dute erasotzailearen aurka aurrera egiten laguntzeko. Eta oraindik emakume horiek babesteko mekanismoa eraikitzeaz dagoelakoan gaude.

⁹³ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa, 1.art: “*garantizar los derechos fundamentales de los niños, niñas y adolescentes a su integridad física, psíquica, psicológica y moral frente a cualquier forma de violencia, asegurando el libre desarrollo de su personalidad y estableciendo medidas de protección integral, que incluyan la sensibilización, la prevención, la detección precoz, la protección y la reparación del daño en todos los ámbitos en los que se desarrolla su vida*”.

⁹⁴ GAMAZO CARRASCO, María Belén, “Análisis de las principales novedades en la LECRIM introducidas por LO 8/21 de 4 de junio”. *Diario La Ley*, 9936 zk., 2021.

⁹⁵ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa, Zioen Azalpenak.

⁹⁶ RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana, “Claves de la reforma de la dispensa del deber de declarar ex Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9916 zk., 2021, 1.or.

2. DISPENTSAREN ARAUKETAREN ERREFORMA: SALBUESPENAK

8/2021 Lege Organikoak egindako erreformarekin, 5 kasu sartu dira, zeinetan ezingo den erabili deklaratzeko betebeharraren orokorraren dispentsa⁹⁷. Horietako lau, hain zuzen ere, Prozedura Kriminalaren Legearen 2020ko Aurreproiektuan jasotzen dira⁹⁸.

Deklaratzeko betebeharraren dispentsaren salbuespenak aztertu baino lehen, beharrezkoa da “biktima adingabearen” kontzeptua argitzea, 1. eta 2.salbuespenekin lotura zuzena duena.

Zehazki, adingabeak genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen dira, emakumeekin batera. Izan ere, abenduaren 28ko 1/2004 LOren arabera, emakumearen aurkako indarkeria-egoerek beren familia-ingurunean dauden adingabeei ere eragiten diete, indarkeria horren zuzeneko edo zeharkako biktimei⁹⁹. Delituaren Biktimaren Estatutuak, biktima izatearen kontzeptu orokorra ezartzen duena (2.art.), egia da ez dituela biktima gisa barne hartzen definizio horretan beren amek jasaten duten indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak, baina biktima gisa ikusarazi nahi ditu¹⁰⁰. Era berean, Istanbulko Hitzarmenaren arabera, estatuek legegintza-neurriak edo beharrezkoak diren beste neurri batzuk hartu behar dituzte biktima guztiak babesteko indarkeria-ekintza ororen aurka, baita biktimen seme-alabak ere¹⁰¹.

⁹⁷ Egungo PKLko 416.1.art.

⁹⁸ Prozedura Kriminalaren Legearen Aurreproiektua, 2020ko azaroaren 24koa, 660.2.art: “*Lo dispuesto en el apartado anterior no será de aplicación en los siguientes casos: a) Cuando por razón de su edad o discapacidad el testigo no pueda comprender el sentido de la dispensa. A tal efecto, el juez oirá previamente a la persona afectada, pudiendo recabar el auxilio de peritos para resolver. b) Cuando el testigo tenga atribuida la representación legal o guarda de hecho de la víctima menor de edad o con discapacidad. c) Cuando el testigo esté o haya estado personado en el procedimiento como acusación particular. d) Cuando el testigo haya aceptado declarar durante el procedimiento después de haber sido debidamente informado de su derecho a no hacerlo*”.

⁹⁹ Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 LO, Zioen Azalpenak: “*La violencia de género a que se refiere esta Ley también comprende la violencia que con el objetivo de causar perjuicio o daño a las mujeres se ejerza sobre sus familiares o allegados menores de edad por parte de las personas indicadas en el apartado primero*”; haurrak eta nerabeak babesteko 8/2015 LOk egindako modifikazioa dela eta.

¹⁰⁰ 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena, Hitzarurreko IV. *in fine* atala: “*se busca visibilizar como víctimas a los menores que se encuentran en un entorno de violencia de género o violencia doméstica, para garantizarles el acceso a los servicios de asistencia y apoyo, así como la adopción de medidas de protección, con el objetivo de facilitar su recuperación integral*”

¹⁰¹ Maiatzaren 11ko 2011ko Istanbulko Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa, 18.1.art: “*Las Partes tomarán las medidas legislativas u otras necesarias para proteger a todas las víctimas contra cualquier nuevo acto de violencia*”; 18.3.art.: “*Las Partes velarán por que las medidas tomadas conforme al presente capítulo: – Se basen en una comprensión fundamentada en el género de la violencia contra la mujer y la violencia doméstica, y se concentren en los derechos humanos y la seguridad de la víctima; – Se basen en un enfoque*

Azkenik, Europako Parlamentuaren 2021eko urriaren 6ko Ebazpena aipatu behar dugu, zeinaren arabera: “bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparruko indarkeriak lotura estua du adingabeen aurkako indarkeriarekin eta haurren aurkako tratu txarrekin”¹⁰².

Zentzu berean, apirilaren 18ko 188/2018 AGEk adierazi zuen adingabeek pairatzen duten genero-indarkeria esperientzia traumatikoa dela haientzat, eta, gainera, kalte egiten die beren nortasunaren garapenean¹⁰³. Hori dela eta, babes berezia behar dute.

Horregatik guztiagatik, 8/2021 LOk egindako erreforma dela eta, ondorioztatzen da PKLko 416.1.artikuluak jasotzen duen biktima adingabearen kontzeptuak, Delituaren Biktimaren Estatutuaren Legeak adierazitako biktima zuzen edo zeharkakoez gain, barne hartzen dituela amek jasaten duten indarkeriaren eraginpean daudenak, genero-indarkeriarekin edo etxeko indarkeriarekin ikusi edo bizi izan diren adingabeak, alegia¹⁰⁴.

Deklaratzeko dispentsaren salbuespenetara bueltatuz, lehendabizi (1), deklaratzeko betebeharraren dispentsa ezin izango da erabili **lekukoak biktima adingabearen edo babes berezia behar duen desgaituaren legezko ordezkari edo izatezko zaintza esleituta duenean** (PKLko 416.1.1.art). Orduan, kontuan hartuta, oro har, adingabeen legezko ordezkariak “guraso-ahala duten gurasoei” dagokiela, salbuespen horrekin bat etorritik, genero-indarkeriaren biktima den amak ezin izango du dispentsarik hartu, bere

integrado que tome en cuenta la relación entre las víctimas, los autores de los delitos, los niños y su entorno social más amplio; – Estén dirigidas a evitar la victimización secundaria; – Estén dirigidas al empoderamiento e independencia económica de las mujeres víctimas de violencia; – Permitan, en su caso, el establecimiento de un conjunto de servicios de protección y apoyo en los mismos locales;– Respondan a las necesidades específicas de las personas vulnerables, incluso los hijos de las víctimas, y sean accesibles para ellos”.

¹⁰² Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2021eko urriaren 6koa, etxeko indarkeriak eta zaintza-eskubideak emakumeengan eta haurrengan duten eraginari buruzkoa (2019/2166(INI)): “*La exposición de los niños a la violencia doméstica debe considerarse violencia contra los niños; que los niños expuestos a la violencia doméstica sufren consecuencias negativas para su salud mental o física, que pueden ser de naturaleza aguda y crónica*” ... “*que el crecimiento en un entorno de violencia doméstica conlleva consecuencias muy negativas para el desarrollo físico, emocional y social del niño y su posterior comportamiento como adulto; que la exposición a la violencia en la niñez, ya sea como víctima de malos tratos o como testigo de episodios de violencia doméstica, constituye un factor de riesgo de cara a convertirse en vulnerable a la victimización o cometer actos de violencia como adulto, o bien experimentar problemas de comportamiento o de salud física o mental*”. Era berean, Parlamentua: “*insta encarecidamente a que toda forma de violencia, incluida la violencia presenciada contra un progenitor o una persona allegada, se considere tanto en el plano jurídico como en la práctica una violación de los derechos humanos y un acto contra el interés superior del menor*”.

¹⁰³ 188/2018 AGE, apirilaren 18koa, 2 OJ.

¹⁰⁴ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 13.or.

seme-alabak biktimak izan badira lehen adierazitako zentzuan. Adingabearen interes gorenak, gatazkan sartzen den beste edozein interesekiko interes nagusi gisa, eragiten du adingabeak indarkeriarik gabeko giroan bizitzeko duen interes gorena gailentzea, lekukoak dispentsa baliatzeko duen eskubidearen aurrean¹⁰⁵.

Gainera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko LOk xedatzen du adingabearen interes gorena kasu bakoitzean interpretatzeko eta aplikatzeko, nabarmentzekoa dela adingabearen bizitza eta garapena indarkeriarik gabeko familia-ingurune egoki batean gertatzea¹⁰⁶.

Bigarrenik (2), dispentsa ezin izango da erabili honako betekizun hauek ematen direnean: **delitu larria denean, lekukoa adin nagusikoa denean eta biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua denean** (PKLko 416.1.2.art.). Salbuespen honen inguruan bi gauza nabarmendu behar dira: alde batetik, salbuespen hori delitu larrietara mugatzen da, Zigor Kodeko (aurrerantzean ZK) 13.1. eta 33.2.artikuluen arabera¹⁰⁷. Bestetik, aipatzekoa da, salbuespen hori idatzita dagoen moduan, ez dela eskatzen lekukoaren eta biktimaren artean inolako harremanik edo loturarik egotea¹⁰⁸.

Hirugarrenik (3), **adina edo desgaitasuna dela-eta lekukoak ezin duenean ulertu dispentsaren zentzua**, ezin izango da dispentsa erabili (PKLko 416.1.3.art). Horren inguruan erabakitzeko, epaileak alde zuzenetik entzungo dio ukitutako pertsonari, eta adituen laguntza eskatu ahal izango du ebazteko. Salbuespen horretan, bi arazo

¹⁰⁵ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 42.or.

¹⁰⁶ 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, 2.2.c.art.: “*A efectos de la interpretación y aplicación en cada caso del interés superior del menor, se tendrán en cuenta los siguientes criterios generales, sin perjuicio de los establecidos en la legislación específica aplicable, así como de aquellos otros que puedan estimarse adecuados atendiendo a las circunstancias concretas del supuesto: c) La conveniencia de que su vida y desarrollo tenga lugar en un entorno familiar adecuado y libre de violencia. Se priorizará la permanencia en su familia de origen y se preservará el mantenimiento de sus relaciones familiares, siempre que sea posible y positivo para el menor. En caso de acordarse una medida de protección, se priorizará el acogimiento familiar frente al residencial. Cuando el menor hubiera sido separado de su núcleo familiar, se valorarán las posibilidades y conveniencia de su retorno, teniendo en cuenta la evolución de la familia desde que se adoptó la medida protectora y primando siempre el interés y las necesidades del menor sobre las de la familia*”.

¹⁰⁷ 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa: 13.1.art.: “*Son delitos graves las infracciones que la Ley castiga con pena grave*”; zentzu horretan, ZKko 33.2.artikuluari erreferentzia.

¹⁰⁸ RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana, “Claves de la reforma de la dispensa del deber de declarar ex Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9916 zk., 2021, 2.or.

aurreikusten dira: batetik, adingabeko lekukoak ulertzeko duten gaitasuna zehazteko prozesua; eta, bestetik, ulermen falta horren ondorioak¹⁰⁹.

Zehazki, AGk esan izan du adingabearen adina eta heldutasuna kontuan hartu behar direla adingabe batek dispentsa erabil dezakeen ala ez erabakitzeko. Zentzu horretan, AGk adierazi du “zentzuzkotzat jo liteke heldutasun-presuntzioa 12 eta 14 urte bitarteko adin-tartean kokatzea, adin biologiko hori goiztiartzat jotzen duten inguruabar bereziak daudenean izan ezik”¹¹⁰.

Hori dela eta, adingabeak 12 urte baino gutxiago, edo 12 eta 14 urte bitartean baditu eta ulertzeko gaitasunari buruzko zalantzak sortzen badira, aztertu beharko da ea gai den dispentsaren edukia eta ondorioak ulertzeko; horretarako, egoera askotan adituen laguntza beharko dugu. Ondorioz, beharrezkoa da inplikaturako administrazioek behar diren neurriak hartzea, ahalik eta lasterren osa daitezen Auzitegi Balorazio Integraleko Unitateak probintzia guztietan, genero-indarkerian eta haurren aurkako tratu txarretan langile nahikoak eta bereziki prestatuak izan ditzaten, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegietan laguntza emateko, halako zereginetan: kautela-neurriei buruz erabakitzen, adingabeei adinak eragindako bereizkeriarik egin gabe entzunaldia ematen, eta aditu-txostenak arrazoizko epeetan egiten¹¹¹.

Orduan, adingabea dispentsaren zentzua ulertzeko gai ez dela erabakitzen bada, deklaratu beharko du, eta horretarako, bere segurtasuna eta intimitatea bermatzeko eta babesteko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko neurriak hartu beharko dira, eta, hala dagokionean, aurrez egindako froga gisa hartuko da, PKLko 449.ter.artikuluaren arabera¹¹². Aitzitik, prozeduran zehar adingabea nahikoa heldutasunera iristen bada

¹⁰⁹ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 17.or.

¹¹⁰ 329/2021 AGE, apirilaren 22koa, 1.OJ; 752/2021 AGE, urriaren 6koa, 4.OJ. Horren haritik, aipatzekoa da puntu horren inguruko honako jurisprudentzia-azterketa: MARAVALL BUCKWALTER, Isabel, *El derecho del niño a acogerse a la dispensa del deber de declarar. Reflexiones desde el Derecho Internacional de los Derechos Humanos*, InDret, 1.zk., Bartzelona, 2019, 13-17.or.

¹¹¹ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 43.or. Zentzu berean: 342/2021 AGE, apirilaren 23koa, 2.OJ; 752/2021 AGE, urriaren 6koa, 4.OJ; 225/2020 AGE, maiatzaren 25koa, 3.OJ.

¹¹² MAGRO SERVET, Vicente, “Análisis de la reforma procesal penal de la Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia”, *Diario La Ley*, 9862.zk., 2021, 9.or.

PKLko 449.ter.art.: “Cuando una persona menor de catorce años o una persona con discapacidad necesitada de especial protección deba intervenir en condición de testigo en un procedimiento judicial que tenga por objeto la instrucción de un delito de homicidio, lesiones, contra la libertad, contra la integridad

dispentsaren edukia eta ondorioak ulertzeko, eta geroko prozesu-uneetan erabili nahi badu, 5.salbuespenean kontrakoa aurreikusi arren, adingabeak dispentsari heldu ahal izango dio¹¹³.

Beraz, ikusi dugu PKLko 416.1.artikuluak ezgaiak ere aipatzen dituela 1., 2. eta 3.salbuespenetan. Nolanahi ere, ezgaiak babestearen helburua adingabeen kasuan dagoen bera da: dispentsa-eskubidearen erabilera bertan behera uztea, babesteko duinagotzat jotzen den interes bat dagoelako¹¹⁴.

Laugarrenik (4), dispentsa ezin izango da erabili **lekukoa prozeduran akusazio partikular gisa aurkeztuta dagoenean edo egon denean**. Honi dagokionez, erreformak AGk uztailaren 10eko 389/2020 Epaian hartutako jarrera onartzen du¹¹⁵. Epaia horretan, AGren 2013ko apirilaren 24ko Akordioan ezarritako irizpidera itzuli zen, eta ulertu zuen akzio penala akusazio partikular gisa gauzatzeko legezko dispentsa erabiltzeko aukera eragozten duela, nahiz eta geroago posizio prozesal horri uko egin. Jurisprudentiaren jarrera hori PKLko 416.1.4.artikuluari islatu da. Hala ere, badaude pentsatzen dutenak akusazio partikularra izateari uko egiteak ez duela dispentsaren erabilera eragotzi behar¹¹⁶, lehen aztertu dugun bezala.

Bosgarrenik (5), dispentsa ezin izango da erabili **lekukoak prozeduran zehar deklaratzeko onartu duenean, ez deklaratzeko eskubidea duela behar bezala jakinarazi ondoren** (PKLko 416.1.5.art.). Ondorioz, beharrezkoa da 6/2011 Zirkularrean lortutako ondorioa berrinterpretatzea, zeinaren arabera, biktima-lekukoari

moral, trata de seres humanos, contra la libertad e indemnidad sexuales, contra la intimidación, contra las relaciones familiares, relativos al ejercicio de derechos fundamentales y libertades públicas, de organizaciones y grupos criminales y terroristas y de terrorismo, la autoridad judicial acordará, en todo caso, practicar la audiencia del menor como prueba preconstituida, con todas las garantías de la práctica de prueba en el juicio oral y de conformidad con lo establecido en el artículo anterior. Este proceso se realizará con todas las garantías de accesibilidad y apoyos necesarios... ”.

¹¹³ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 43.or.

¹¹⁴ RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana, “Claves de la reforma de la dispensa del deber de declarar ex Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9916 zk., 2021, 3.or.

¹¹⁵ 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 11. OJ. Zentzu berean: Palma de Mallorcako 16/2022 PAE, urtarrilaren 14koa, 1.OJ; 449/2015 AGE, uztailaren 14koa, 1.OJ.

¹¹⁶ Besteak beste; RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana, “Claves de la reforma de la dispensa del deber de declarar ex Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9916 zk., 2021, 3.or.: “*a pesar de que compartimos el hecho de que se aplique esta excepción a quienes están personados como acusación particular al propio tiempo de prestar declaración, no estamos conformes con que la excepción se extienda a quienes en algún momento han ejercido la acusación particular, pero ya han cesado en tal condición en el momento de deponer*”.

berariaz eta argi eta garbi jakinarazi beharko zaio prozesuko fase guztietan, eta betiere, egoitza judizialean deklaratzera deitua denean, deklaratzeko betebeharretik salbuetsita dagoela. Gaur egun, lehenengo deklarazioan informazioa jaso eta deklaratzera erabakitzen bada, dispentsa bertan behera geratzen dela ulertzen da, eta, beraz, ez da horren berri eman beharko ondorengo deklarazioetan. Hala ere, garrantzitsua da gogoraraztea oraindik ere indarrean dagoela lekukoari dispentsaren edukiaren berri emateko betebeharra, lehenengo deklarazioa egin aurretik eta horri buruz deitzen zaion hurrengo aldietan, lehenengoan dispentsari heltzea erabaki bazuen¹¹⁷.

Era berean, salbuespen horri dagokionez, zalantza sortu zen prozedura gisa zer ulertu behar ote den. Eztabaidaren ardatza da zehaztea polizia-fasean edo Fiskaltzaren ikerketa-eginbideetan egindako deklarazioak epaitzean salbuespen horretan sartuta geratzen diren. Bada, 5.salbuespena aplikatu ahal izateko, beharrezkoa da lekukoak prozedura judizialean deklaratzera onartu izana, ez deklaratzeko eskubidearen berri behar bezala eman ondoren; eta ez du dispentsari heltzeko aukera galduko, poliziaren aurrean edo Fiskaltzaren ikerketa-eginbideetan deklaratzegatik¹¹⁸.

Konklusio gisa, nabarmendu beharra dago lege-eraldaketak 389/2020 AGEren ildo jarraitzen duela. Erreformarekin sartu diren 5 salbuespen horien helburua da dispentsaren erabilera mugatzea; izan ere, saihestu egin nahi da genero-indarkeriako kasuetan biktima-lekukoak derrigortzeak jasatea dispentsa har dezan, eta prozedura frogarik gabe kentzea, delitu horietako gehienak etxeko intimitatean gertatzen baitira¹¹⁹.

Beraz, jarrera berria argi dago, eta horren ondorioa ere bai: genero-indarkeriagatiko prozesu batean adingabeekin eta desgaituekin zerikusia duten lehenengo 3 salbuespenak ematen direnean, emakumeak jada prozesuan deklaratu duenean, edo

¹¹⁷ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 44.or. Zentzu berean: AGEko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa; 449/2015 AGE, uztailearen 14koa, 1 OJ.

¹¹⁸ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 44.or. Zentzu berean: 347/2020 AGE, abenduaren 5ekoa, 2.OJ; 206/2003 KAE, abenduaren 1ekoa, 3.OJ.

¹¹⁹ RUIZ RODRÍGUEZ, M^a Adoración, “La dispensa al deber de declarar (art. 416 Lecrim). Nueva vuelta de tuerca. Comentario a la Sentencia 389/2020 de 10 de julio”, *Diario La Ley*, 9710.zk., 2020, 6.or. Hala ere, horren aurka: 389/2020 AGE, uztailearen 10ekoa, Boto Partikularra, PALOMO DEL ARCO, Andrés: *“Esa postura en nada garantiza el cese de las presiones que trata de evitar, pues quien coacciona para obligar a invocar la dispensa, igualmente estará dispuesto a coaccionar para que la declaración del cónyuge tenga un concreto contenido, que le sea favorable”*

akusazio partikular gisa aurkezten denean, galdu egiten da jarduketa horrekin, modu atzeraezinean, akusatuaren aurka ez deklaratzeko eskubidea, eta, ondorioz, ahozko epaiketan gertatutakoari buruzko lekukotza emateko betebeharra izango du, nahiz eta epaiketa egiteko unean bere asmoa, borondatea edo sentimenduak horren aurkakoak izan¹²⁰. Hori dela eta, ondoriozta dezakegu arestian aipatutako arazoetako bat gainditu dela, hau da, aipatutako kasuetan emakumeak ahozko epaiketan nahita deklaratu beharko duenez, ez da eztabaidatuko instrukzioan egingo deklarazioaren balioaren inguruan.

Hala ere, uste dugu horrekin emakumea behartzen ari dela gertatutako guztia berriro bizitzera, askotan erasotzailearekin aurrez aurre egon beharko duelarik, eta hori ez da ona, bere ahultasun bereziko egoera kontuan hartuta. Beraz, bere deklarazioa aintzat hartzeko beste aukera batzuk egon daitezkeela uste dugu, birbiktimizazioa ekiditeko, hurrengo puntuan aztertuko dugun bezala.

¹²⁰ HERRERO ÁLVAREZ, Sergio, “El ajeteo jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en procesos por violencia de género: la Sentencia 389/2020 de 10 de julio”, *Diario La Ley*, 9693.zk., 2020, 4.or.

V.- DEKLARATZEKO BETEBEHARRAREN DISPENTSAREN ALTERNATIBAK GENERO-INDARKERIA ARLOAN

1. EZ DEKLARATZEA ETA DISPENTSARI HELTZEA: ARRAZOIAK ETA DATU ERREALAK

Genero-indarkeriaren biktimak, gure ordenamendu juridikoan, zailtasun handiak izan ditu betidanik bere egoera frogatzeko. Izan ere, genero-indarkeria familiaren etxebizitzan gertatu ohi da, lekukorik gabe edo lekuko adingabeekin, eta askotan delitua frogatzen duen azaleko markarik gabe. Beraz, genero-indarkeriaren biktimak PKLko 416.1.artikuluak xedatutako deklaratzeko betebeharraren dispentsa erabiltzeak akusatuaren absoluzioa ekar dezake praktika judizialean.

Konkretuki, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak genero-indarkeriari buruzko 2021eko txostenean aztertu duenez, 15.720 kasu egon dira non biktimek ez deklaratzeko dispentsari heldu dioten¹²¹. Are gehiago, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako Behatokiko datuen arabera, ez deklaratzeko eskubideari heltzen dioten genero-indarkeriaren biktimen ratioa %11,4koa da 2020an, eta %11,0koa 2021ean. Era berean, deklaratzeari uko egiten dioten emakumeen batez bestekoa %12,4koa da 2012 eta 2021 bitartean.¹²²

Hori dela eta, urteetan zehar aztertu izan dira genero-indarkeriaren biktimak ez deklaratzearen arrazoiak, salaketa kentzeko arrazoiekin lotura zuzena dutenak. Zehazki, 2019ko Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren arabera, emakumeen %24,7k beldurragatik kendu zuen salaketa; %21,9k, erasotzailea seme-alaben aita zelako; %19k, berriz ez zela gertatuko zin egin ziotelako; %19k, bikotekideagatik pena sentitzeagatik; %18,1ek, banandu egin zirelako; %15ek, beste arrazoi batzuegatik; %14,9k, erasotzailearen mehatxuengatik; eta %10eko edo gutxiagoko intzidentziarekin, gomendatu ziotelako, bikotekidearekin maiteminduta jarraitzen zuelako edo baliabide ekonomiko propiorik ez zuelako.¹²³

¹²¹ OBSERVATORIO CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA Y DE GÉNERO, “Informe anual sobre violencia de género, año 2021”, Poder Judicial España, C.G.P.J – Violencia doméstica y de género – Actividad del Observatorio – Datos estadísticos, 2021, 7.or.

¹²² OBSERVATORIO CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA Y DE GÉNERO, “La violencia de género en 10 indicadores / año 2021”, Poder Judicial España, C.G.P.J – Violencia doméstica y de género – Actividad del Observatorio – Datos estadísticos, 2021, 1.or.

¹²³ DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO, *Macroencuesta de violencia contra la mujer*, Ministerio de Igualdad, Madril, 2019., 112.or. Eskuragarri:

Horrez gain, gure ustez, askotan emakumeek deklaratzeko betebeharraren dispentsari heltzen diote edo salaketa kentzen dute gizarte matxista baten presioagatik, “zer esango duten” beldur direlako, eta horrek pentsarazten die inork ez diela sinetsiko, orduan, bakarrik eta babesik gabe sentitzen dira. Izan ere, bizi garen gizartearen erruz, askotan emakumeek ez dute deklaratzeko jasangarria tratatu txarren errudun eta lotsadun sentitzen direlako, eta hori aldatu beharko litzateke, egoera horietan errudun bakarria erasotzailea delako.

Oro har, emakumearen salatze erabakian eragiten dute delituaren ezaugarriek, ikuspegi sozialek eta biktimizazioaren ondorengo egoera psikologikoak. Izan ere, delituaren ondorioz gertatzen den kitzikapen-egoerak eta horrek eragiten duen shock emozionalak disrupzioak eragiten dituzte biktimaren funtzio kognitiboetan, eta disrupzio horiek ezin hobeto azaltzen dituzte salaketa egiteko garaian sortzen diren zalantzak, hutsaketak eta zehaztugabetasunak, bai eta ondorengo deklarazioetan ere¹²⁴.

Beraz, egoera horiek guztiak saihestu behar dira, eta biktima deklaratzera animatu, behartu gabe. Biktima babestuta senti dadin eta deklarazioa egin dezan, berme prozesalak bete behar dira eta biktimari arreta emateko neurri materialak eta giza neurriak areagotu, hurrengo atalean proposatuko dugun bezala.

2. DISPENTSARI HELTZEA SAIHESTEKO ALTERNATIBAK GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAT

Aurreko atalean aztertu bezala, askotan emakumeak dispentsari heltzen dio hainbat arrazoiengatik, besteak beste: beldurragatik, lotsagatik, seme-alabengatik, presio sozialagatik... Hori dela eta, gure ustez konponbidea ez da emakumea deklaratzera behartzea, baizik eta alternatiba batzuk bilatzea emakumeak deklaratzeko presiorik ez sentitzeko eta ahal den neurrian gertatutakoa berriz ez bizitzeko; horrela, besteok bere alde gaudela senti dezala. Horregatik, legegileak, genero-ikuspegiarekin, blindatu egin behar ditu biktimei eskaintzen zaizkien tresnak. Zehazki, biktimak deklaratzeko betebeharretik salbuestea saihesteko tresna garrantzitsuenak honako hauek izan daitezke: bideokonferentziaren erabilera eta laguntza pertsonalizatua.

https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/Macroencuesta_2019_estudio_investigacion.pdf [azken kontsulta: 2022/04/09].

¹²⁴ Horrela ulertzen du FERREIRO BAAMONDE, Xuliok, *La víctima en el proceso penal*, La Ley, Madril, 2005, 301.or.

1.1. Bideokonferentziaren erabilera

Emakume lekuko-biktimak badu aukera bideokonferentzia bidez deklaratzeko. Zehazki, genero-indarkeria arloan, zigor-prozesuan bideokonferentzia erabiltzeko arrazoia testigu-biktimen birbiktimizazioa saihestea da¹²⁵. Zentzu horretan, PKLko 731.bis.artikulu¹²⁶ daukagu.

Era berean, genero-indarkeriaren biktimentzako tresna baliotsu hau PKLko 544.ter.artikuluan dago araututa ere: *“Durante la audiencia, el Juez de guardia adoptará las medidas oportunas para evitar la confrontación entre el presunto agresor y la víctima, sus hijos y los restantes miembros de la familia. A estos efectos dispondrá que su declaración en esta audiencia se realice por separado”*. Gure ustez, deklarazioak bereizita egitea bideokonferentzian oinarritu liteke biktima eta erasotzailea entzunaldiaren aurreko itxaronaldietan gurutzatzea saihesteko ere, ez bakarrik epailearen aurreko deklarazioetan. Delituaren akusatua ez ezik, bien senideekin gurutzatzea ere saihestu behar da. Izan ere, epaitegien eta auzitegien egitura dela eta, korridoretan denek batera deklaratzeko zain daude, aretora sartu aurretik. Hori dela eta, uste dugu epaitegi eta auzitegien instalazioa hobetu beharko litzatekeela, biktima babesteko. Horrela, biktimari deklaratzeko laguntzen diogu, erasotzailearen eta familiaren presiopean egon behar ez duelako.

Fiskaltzak berak, bideokonferentzia bidez egin daitezkeen egintza prozesalei buruzko martxoaren 1eko 3/2002 Instrukzioan, aipatzen du bitarteko hori egokia dela etxeko indarkeriaren biktimentzat. Bideokonferentzia, zehazki, onuragarria da pertsona

¹²⁵ JORDÁN DÍAZ-RONCERO, María José. *Análisis de la implantación y eficacia de la videoconferencia en el proceso penal español: Hacia una modernización de nuestro sistema de justicia penal*. Valentziako Unibertsitateko doktore-tesia, Valentzia, 2014, 6-7.or.

¹²⁶ PKLko 731.bis.art.: *“El Tribunal, de oficio o a instancia de parte, por razones de utilidad, seguridad o de orden público, así como en aquellos supuestos en que la comparecencia de quien haya de intervenir en cualquier tipo de procedimiento penal como imputado, testigo, perito, o en otra condición resulte gravosa o perjudicial, y, especialmente, cuando se trate de un menor, podrá acordar que su actuación se realice a través de videoconferencia u otro sistema similar que permita la comunicación bidireccional y simultánea de la imagen y el sonido, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 229 de la Ley Orgánica del Poder Judicial”*. Zentzu berean, BJLOko 229.3.art.: *“Estas actuaciones podrán realizarse a través de videoconferencia u otro sistema similar que permita la comunicación bidireccional y simultánea de la imagen y el sonido y la interacción visual, auditiva y verbal entre dos personas o grupos de personas geográficamente distantes, asegurando en todo caso la posibilidad de contradicción de las partes y la salvaguarda del derecho de defensa, cuando así lo acuerde el juez o tribunal. En estos casos, el letrado de la Administración de Justicia del juzgado o tribunal que haya acordado la medida acreditará desde la propia sede judicial la identidad de las personas que intervengan a través de la videoconferencia mediante la previa remisión o la exhibición directa de documentación, por conocimiento personal o por cualquier otro medio procesal idóneo”*.

horien adierazpen aske eta espontanea babesteko¹²⁷. Izan ere, Genero-Indarkeriari buruzko Estatu-Itunak bideokonferentzia erabiltzearen alde egiten du, birbiktimizazioa ekiditeko¹²⁸.

Bideokonferentzia deklaratzeko dispentsarekin lotuz, MAGRO SERVET Justizia Administraioarentzat arazo larria den gaia aztertzen du: genero-indarkeria bezalako biktima batek, lekuko ezinbestekotzat hartzen denak, dispentsa erabiltzeak auzien jarraipena ezinezko egiten du, eta horiek artxibatzea eragiten du. Beraz, genero-indarkeriaren biktimari bideokonferentzia bidez deklaratzeko lehentasuna izan beharko luke epaitegi eta auzitegi guztientzat, berdintasun materialaren, justiziaren eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidearen mesedetan¹²⁹.

Gainera, MONTESINOS GARCÍAk dioen bezala, metodo hori erabilgarria da, delitu horien biktimak ahozko epaiketara joateak dakarren arriskugarritasuna dela eta. Erasotzailearekin areto berean eta aurrez korridoretan topo egiteagatik ez ezik, delitua epaiketa egunean berpizteak ere nahasmendu larria eragin dezake. Gainera, akusatuarengandik metro gutxira esku hartu behar izateak biktima beldurtua sentiaraz lezake, eta ez deklaratzeko edo haren deklarazioa aldatzea eragin lezake, eta haien egiazkotasunari eragin. Horrez gain, ez ditugu ahaztu behar genero-indarkeriaren biktimengan une horietan agertzen diren kalte psikologikoak, hala nola antsietatea, nerbio-estresa, izu-egoera...¹³⁰

Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea bideokonferentzia-sistemak akusatuaren oinarritzko eskubideak errespetatu behar dituela, hala nola babes judizial eraginkorra (EKaren 24. artikulua), eta honako berme prozesal hauek bete behar dituela:

¹²⁷ Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2002 Instrukzioa, martxoaren 1ekoa, bideokonferentzia bidez egin daitezkeen egintza prozesalei buruzkoa, IV. atala.

¹²⁸ DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO, *Documento refundido de medidas del pacto de estado en materia de violencia de género. Congreso + Senado*, Ministerio de Igualdad, Madril, 2019, 132. neurria: “*Para evitar la victimización secundaria, priorizar la adecuación de los Juzgados de Violencia sobre la Mujer y juzgados especializados, con dependencias que impidan la confrontación víctima/agresor, dotándolos de medios audiovisuales que eviten la repetición de las declaraciones y de intérpretes cualificados. Estas mismas dependencias podrán ser utilizadas para los casos de agresiones sexuales y trata de personas con fines de explotación sexual*”, 31.or. Eskuragarri: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/pactoEstado/docs/Documento_Refundido_PEVG_2.pdf [azken kontsulta: 2022/04/25].

¹²⁹ MAGRO SERVET, Vicente, “La imposibilidad de conceder a las víctimas de la Violencia de Género la dispensa de declarar contra sus agresores (art.416 LECrim): ¿Es necesaria una reforma legal?”, *Diario La Ley*, 6333.zk., 2005, 4-5or.

¹³⁰ MONTESINOS GARCÍA, Ana. *La videoconferencia como instrumento probatorio en el proceso penal*, Marcial Pons, Madril, 2009, 36-38.or.

kontraesan- eta defentsa-eskubideak, publizitate- eta berehalakotasun-eskubideak, eta egintza-batasunaren printzipioa. Horrela, epaitegiek eta auzitegiek oreka bilatu behar dute akusatuaren eta delituaren biktimaren eskubideen artean¹³¹.

1.2. Biktimari laguntzea eta sentsibilizazioa

Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko 1/2004 Legea eta Delituaren Biktimaren Estatutua onartu zirenetik, genero-indarkeriaren biktimek hainbat eskubide dituzte, besteak beste, gizarte-laguntza integrala¹³². Zehazki, laguntza eta aholkularitza hori eman beharko zaie Biktimei Laguntzeko Bulegoen bidez, bere eskubidea den heinean¹³³. Gizarte-laguntzako eskubide horiek autonomia-erkidegoen eskumen eskusiboa dira¹³⁴, eta, beraz, autonomia-erkidegoen ardura izango da eskubide horiek guztiak garatzea herri eta hiri guztietan.

Ildo beretik, genero-indarkeriaren biktimek aurre egin behar dioten prozesu osoan zehar, laguntzen dieten hainbat profesional aurkitzen dituzte. Biktima horiei laguntzea funtsezkoa da, ahultasun eta arrisku bereziko egoeran baitaude. Hala ere, erasotzaileengandik bereizteko prozesua indarkeria hori jasan duen emakume bakoitzaren araberakoa da, berak erabakiko du deklaratzeko ala ez. Batzuk gizarte-zerbitzuetara joango dira, beste batzuk poliziara, beste batzuk emakumeen zentroko baliabideetara, edo zuzenean abokatu batengana edo ospitalera. Baina bakoitzak erabakiko du egoera horri nola egin aurre, berezko borondatez.

Dena den, garrantzitsua da biktimak bakarrik ez sentitzea eta ahalik eta aholkularitzarik onena izatea, objektibotasun handiagoz erabaki dezaten deklaratu ala ez¹³⁵. Horregatik, profesional batzuek biktimei laguntzen diete, beren egoera adierazten eta salatzen dutenetik ala ez, prozesua bukatu arte. Laguntza ematen duten profesional

¹³¹ BAQUERO MARTÍN, Araceli, *La videoconferencia en las garantías del proceso penal*, Sevillako Unibertsitateko doktore-tesia, Sevilla, 2017, 348-349.or.

¹³² Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko 1/2004 LO, II.Titulua, I.Kapitulua 17-20.art.

¹³³ 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena, I.Titulua, 4-10.art.; IV.Titulua, I.Kapitulua, 27-29.art. Zentzu berean, 389/2020 AGE, uztailaren 10ekoa, 11. OJ: “*En el caso de testigos víctimas, deberá velarse por su completo asesoramiento acerca su estatuto como testigo o como parte acusadora, de acuerdo con las previsiones del Estatuto de la Víctima del Delito, lo que habitualmente se verificará en las Oficinas de Atención a las Víctimas*”.

¹³⁴ EKko 148.1.20.art: “*Honako gai hauek izan daitezke autonomia-erkidegoen eskumenekoak: gizarte-laguntza*”.

¹³⁵ YUGUEROS GARCÍA, ANTONIO JESÚS, “Las dispensas procesales en el contexto de la violencia de género en las relaciones de pareja o expareja”, *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, 79.zk., 2018, 157.or.

horien artean daude: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, abokatuak, gizartelangileak, medikuak eta psikologoak.

Ez dago modu hoberik erasotzaileari delituzko ekintzetatik zigorrik gabe irtetea eragozteko, biktimei hitz egin dezaten eta beren historia konta dezaten laguntzea baino; horrela, ahozko epaiketaren unean biktimak ez du dispentsa erabiliko.

Bestalde, atal honekin bukatzeko, ezinbestekoa da Fiskaltzaren papera, biktimaren ondoan baitago ere prozesu osoan zehar. Bertaratutako biktimen dispentsaren bazterketak, genero-indarkeriaren biktimen ezaugarri bereziek, hauskortasunak eta mendekotasun afektiboak une bereziki delikatuak bihurtzen dute osoko bilkura, eta horrek sarritan eragiten du ez deklaratzeko, edo gertaerak minimizatzea, ez gogoratzea edo ebasiboekin erantzutea, edo are, aurreko adierazpenak aldatzea. Fiskalek inguruabar horiek kontuan hartuko dituzte, eta, ulermenetik abiatuta, testigantza ematen saiatuko dira, hura berriz birbiktimizatzen eta zalantzan jartzen duten galdeketa inkisitiboak saihestuz¹³⁶.

Horregatik, fiskalek zuhurtziaz jokatu beharko dute osoko bilkuran testigantza edo salaketa faltsuagatik lekukotza ondorioztatzea eskatu gabe, salbuespenak salbu. Komeni da gero egitea, epaia eta deklarazio-aldaketa eragin duten arrazoiak aztertuta. Era berean, biktimak uko egiten badio deklaratzeko betebeharrari errekerimendu judizialen ondoren, fiskalek jarrera hori eragiten duten kausak ikertuko dituzte, eta, hala badagokio, epaiketa minutu gutxiz eteten saiatuko dira, biktimak abokatuarekin hitz egin eta informazioa eta arreta jaso dezan. Horrela, biktimari bere erabakia askatasunez hartzen lagunduko zaio, behar duen babesa emanaz eta bere egoera zehatza kontuan hartuz¹³⁷.

3. DISPENTSA ERABILTZEARREN AURREKO ALTERNATIBAK

Maizegi, gerta daiteke emakumeak bere ezkontide edo bikotekidearen aurka deklaratu nahi ez izatea, horretarako eskubidea izanik salbuespenak salbu¹³⁸; eta delituaren ezaugarriak direla eta, beste inork salaketarik jartzen ez badu edo beste

¹³⁶ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 9.or.

¹³⁷ FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021, 9-10.or.

¹³⁸ PKLko 416.1.artikuluko dispentsaren 5 salbuespenak (aurreko atalean azaldutakoak).

lekukorik ez badaude, prozesuak ez du aurrera egingo emakumeak berak ez duelako deklaratu nahi. Hori dela eta, atal honetan aztertuko dugu zigor prozesuak nola egin dezakeen aurrera dispentsa erabilita.

2.1. Aurretiazko frogaren erabilera

Gaur egun, 8/2021 LOk egindako erreformaren ondorioz, emakumeak alde aurretik onartu badu deklaratzeko dispentsaren berri behar bezala emanda edo akusazio partikular gisa aurkeztu bada, deklaratzera behartuta egongo da, hots, dagoeneko deklaratu duenez, ezin du ahozko epaiketan dispentsaz baliatu¹³⁹. Hala ere, biktimak deklaratzeari uko egiten badio, nahiz eta horrek lege-ondorioak ekarriko lizkiokeen, eta epaile edo auzitegiak dispentsari heltzeko aukera ematen badio, baloratu egin beharko da zer egin instrukzioan egindako deklarazioarekin.

Arazo horren aurrean, gure ustez ahalbidetu beharko litzateke instrukzio-fasean deklaraturakoa ahozko epaiketan erreproduzitzeko aukera, deklarazio hori aurretiazko froga gisa sartuz, PKLko 730.2.artikuluak xedatutakoaren harira¹⁴⁰. Gogora dezagun, legearen arabera, kontuan hartu beharreko deklarazio bakarra ahozko epaiketa dela, lekukotza faltsuaren delituaren ondoretarako¹⁴¹. Horregatik, biktimaren kalteberatasun-egoera dela eta, aintzat hartu beharra dago gerta daitekeela bera ahozko epaiketan deklaratu nahi ez izatea. Ondorioz, eta kontuan hartzen den froga bakarra ahozko epaiketan egindakoa dela aintzat hartuz, emakumearen deklarazioa aurretiazko froga gisa eratzea da konponbiderik onena biktimak behin eta berriz eta prozesuaren fase desberdinetan lekuko gisa deklaratu behar izateak dakarren bigarren mailako biktimizazioa saihesteko. Horretarako, deklarazioa ikus-entzunezko bitartekoen bidez grabatuko da, eta ahozko epaiketan erreproduzitu da, fase prozesal horretan egin beharko litzatekeenaren orde¹⁴².

¹³⁹ PKLko 416.1.5.art.

¹⁴⁰ PKLko 730.2.art.: *“A instancia de cualquiera de las partes, se podrá reproducir la grabación audiovisual de la declaración de la víctima o testigo practicada como prueba preconstituida durante la fase de instrucción conforme a lo dispuesto en el artículo 449 bis”*.

¹⁴¹ PKLko 715.art.: *“Siempre que los testigos que hayan declarado en el sumario comparezcan a declarar también sobre los mismos hechos en el juicio oral, sólo habrá lugar a mandar proceder contra ellos como presuntos autores del delito de falso testimonio cuando éste sea dado en dicho juicio”*.

¹⁴² ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco, “Protagonismo probatorio de la víctima en el proceso penal inconvenientes y ¿posibles soluciones? (al hilo del Convenio de Estambul)”, *Revista Boliviana de Derecho*, 33.zk., 2022, 346.or.

Eta zehazki, hori da ekainaren 4ko 8/2021 LOK ezarri duena lekuko adingabe eta desgaituen kasuetan. Erreformaren aplikazio-eremu subjektiboaren ikuspuntutik, agintaritzak judizialak aurretiazko froga aginduko du, betiere, “*cuando una persona menor de catorce años o una persona con discapacidad necesitada de especial protección deba intervenir en condición de testigo en un procedimiento judicial*” (PKLko 449.ter.art.). Aurretiazko frogaren erabileraren inguruan, 8/2021 LOK 449.bis. eta 703.bis.artikuluak gehitu zituen ere¹⁴³.

Legegilearentzat, aurretiazko froga tresna egokia da biktimizazioa saihesteko. Hori dela eta, kalteberatasun berezia kontuan hartuta, nahitaezkoa izango da lekukoa hamalau urtetik beherakoa edo babes berezia behar duen desgaitasuna duen pertsona denean¹⁴⁴. Lekuko horiek bezala, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak kalteberatasun egoera berezian daude. Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela emakumearen deklarazioa aurretiazko froga gisa sartzea ahalbidetzen duen beste erreforma, birbiktimizazioa saihesteko aukera onena delakoan gaude, 8/2021 LOK adingabe eta desgaituekin egin duen bezala, betiere haren erabilerarako berme guztiak errespetatuz.

¹⁴³ PKLko 449.bis.art.: “*Cuando, en los casos legalmente previstos, la autoridad judicial acuerde la práctica de la declaración del testigo como prueba preconstituída, la misma deberá desarrollarse de conformidad con los requisitos establecidos en este artículo. La autoridad judicial garantizará el principio de contradicción en la práctica de la declaración. La ausencia de la persona investigada debidamente citada no impedirá la práctica de la prueba preconstituída, si bien su defensa letrada, en todo caso, deberá estar presente. En caso de incomparecencia injustificada del defensor de la persona investigada o cuando haya razones de urgencia para proceder inmediatamente, el acto se sustanciará con el abogado de oficio expresamente designado al efecto. La autoridad judicial asegurará la documentación de la declaración en soporte apto para la grabación del sonido y la imagen, debiendo el Letrado de la Administración de Justicia, de forma inmediata, comprobar la calidad de la grabación audiovisual. Se acompañará acta sucinta autorizada por el Letrado de la Administración de Justicia, que contendrá la identificación y firma de todas las personas intervinientes en la prueba preconstituída. Para la valoración de la prueba preconstituída obtenida conforme a lo previsto en los párrafos anteriores, se estará a lo dispuesto en el artículo 730.2.*”.

PKLko 703.bis.art.: “*Cuando en fase de instrucción, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 449 bis y siguientes, se haya practicado como prueba preconstituída la declaración de un testigo, se procederá, a instancia de la parte interesada, a la reproducción en la vista de la grabación audiovisual, de conformidad con el artículo 730.2, sin que sea necesaria la presencia del testigo en la vista. En los supuestos previstos en el artículo 449 ter, la autoridad judicial solo podrá acordar la intervención del testigo en el acto del juicio, con carácter excepcional, cuando sea interesada por alguna de las partes y considerada necesaria en resolución motivada, asegurando que la grabación audiovisual cuenta con los apoyos de accesibilidad cuando el testigo sea una persona con discapacidad. En todo caso, la autoridad judicial encargada del enjuiciamiento, a instancia de parte, podrá acordar su intervención en la vista cuando la prueba preconstituída no reúna todos los requisitos previstos en el artículo 449 bis y cause indefensión a alguna de las partes*”.

¹⁴⁴ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa, II.Hitzaurrea.

2.2. Lekukoen parte hartzea

Biktimaz gain, hirugarrenek ere (senitartekoeak, lagunek edo bizilagunek) salaketa jar dezakete eta jarri behar dute. Izan ere, ezaguna da “zero tolerantzia” adierazpena, guztiei eskatzen baitie beste alde batera ez begiratzeko. Delitu publikoetaz ari gara, eta horiek salatzea betebeharrak zibikoa da. Delitu publikoak direnez, ofizioz jazarri daitezkeenak, prozesua hasiko da biktimak salaketarik jartzen ez badu ere¹⁴⁵.

Hasteko, aintzat hartu beharra dago lekukoak zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezkeela. Eta bai zuzeneko lekukoei, bai zeharkako lekukoei salaketa jartzeko betebeharra ezartzen zaie¹⁴⁶. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar judizialki deituak garen guztiok deklaratzeko betebeharra dugula PKLko 410.artikuluaren arabera¹⁴⁷, salbuespenak salbu.

Orduan, alde batetik, delituaren zuzeneko lekukoak egotea –PKLko 259.artikuluarekin lotuz–, edo, besterik gabe, jokabide zigorgarria ondorioztatzeko inguruabar batzuk egotea, eta horiek epaiketan deklaratzeko, balio izango dute egilearen errugabetasun-presuntzioa suntsitzeko¹⁴⁸.

Bestalde, zeharkako lekukoak daude, eta hemen sortzen da sinesgarritasunaren auzia, zeharkako lekukoa senide bat, lagun bat, agintaritzaren agente bat edo delituegitatea ikusi ez duen norbait izateagatik. Izan ere, PKLko 264.artikuluak, bere frogabaliorekiko konfiantza faltagatik, intentsitate txikiagoko salaketa jartzeko betebeharra ezartzen du. Gainera, PKLko 710.artikuluak hainbat eskakizun eta egiaztapen jasotzen

¹⁴⁵ SERRANO HOYO, Gregorio, “Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género”, *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010, 124.or.

¹⁴⁶ PKLko 259.art.: “*El que presenciare la perpetración de cualquier delito público está obligado a ponerlo inmediatamente en conocimiento del Juez de instrucción, de paz, comarcal o municipal o funcionario fiscal más próximo al sitio en que se hallare...*”. PKLko 264.art.: “*El que por cualquier medio diferente de los mencionados tuviere conocimiento de la perpetración de algún delito de los que deben perseguirse de oficio, deberá denunciarlo...*”.

¹⁴⁷ PKLko 410.art.: “*Todos los que residan en territorio español, nacionales o extranjeros, que no estén impedidos, tendrán obligación de concurrir al llamamiento judicial para declarar cuanto supieren sobre lo que les fuere preguntado si para ello se les cita con las formalidades prescritas en la Ley*”.

¹⁴⁸ SERRANO HOYO, Gregorio, “Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género”, *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010, 125.or.

ditu, eta horiek kontuan hartu beharko ditu epaia emango duen organo judizialak, erreferentziazko lekukotza erabiliko badu haren konbikzioa osatzeko¹⁴⁹.

Izan ere, jurisprudenziak adierazi bezala, emakumeak dispentsari heltzen badio, zeharkako lekukoen deklarazioa ez da nahikoa akusatuaaren errugabetasun-presuntzioa suntsitzeko. Zehazki, 129/2009 AGEren arabera: *“El valor del testimonio de referencia es el de prueba complementaria para reforzar lo acreditado por otros elementos probatorios, o bien el de una prueba subsidiaria, para ser considerada solamente cuando es imposible acudir al testigo directo, porque se desconozca su identidad, haya fallecido o por cualquier otra circunstancia que haga imposible su declaración testifical. Y aún en este caso resulta evidente la debilidad demostrativa del testigo de referencia para sustentar por sí solo un pronunciamiento de condena, por la misma naturaleza de la fuente de su conocimiento, que es indirecta o mediata respecto al hecho delictivo, y siempre condicionada en cuanto su credibilidad depende de la que mereciera el testigo directo, en situación no obstante de imposibilidad de ser interrogado y oído a presencia del Tribunal. En todo caso esa imposibilidad de acudir al testigo directo, que justificaría atender, y con todas las reservas, los testimonios indirectos o de referencia ha de ser material, algo que no concurre en el caso presente; la testigo directa compareció, pero se negó a declarar ante el Tribunal ejercitando libremente la facultad concedida por la Ley de no declarar contra su padre”*¹⁵⁰. Orduan, oro har, zeharkako lekuen deklarazioa froga osagarriaren balioa duela ikus dezakegu.

Beraz, badirudi erreferentziako lekukoen ezaugarri garrantzitsuetako bat dela bakarrik erabili ahal izango dela zuzeneko froga gisa lekuko zuzenak deklaratu ezin duenean edo lekukoaren bertsioa indartzeko. AGk zerrenda bat egin du jakiteko deklaratzeko ezintasun gisa zer hartzen den jurisprudenziaren arabera: non dagoen ez jakitea, nortasuna ez ezagutzea, hilda egotea edo lekukoen deklarazioa eragozten duen

¹⁴⁹ Horrela dio: SERRANO HOYO, Gregoriok, “Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género”, *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010, 128.or. Zentzu berean, PKLko 710.art.: *“Los testigos expresarán la razón de su dicho y, si fueren de referencia, precisarán el origen de la noticia, designando con su nombre y apellido, o con las señas con que fuere conocida, a la persona que se la hubiere comunicado”*.

¹⁵⁰ 129/2009 AGE, otsailaren 10ekoa, 6.OJ. Zentzu berean: 658/2021 AGE, irailaren 3koa, 1.OJ; 315/2020 AGE, ekainaren 15ekoa, 4.OJ.

beste egoeraren bat¹⁵¹. Ikus dezakegun moduan, deklaraziorik ez egiteko dispentsa baliatu duen lekukoaren supostua ez da sartzen kasu horietan.

Hala ere, doktrinan iritzi ezberdinak daude. ESCOBAR JIMÉNEZ¹⁵² eta MONTESINOS GARCÍA-ren¹⁵³ ustez, egia materialaren mesedetan, eta errealtateak genero-indarkeriaren biktimek askatasunez edo mehatxupearan edo hertsatuta deklaratzeko dispentsari heltzen dioten jakitea ahalbidetzen ez digunez, deklaratzeko ezintasuna dago, eta, horregatik, bidezkoa da erreferentziako lekukoaren adierazpenak onartzea, froga osagarri gisa baino froga-pisu handixeagoarekin. Izan ere, ideia bera aurki dezakegu jurisprudentziaren ildotik¹⁵⁴. Gu ideia horren alde gaude, uste dugu erreferentziako lekukoek errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko balio beharko luketela, emakumeak deklaraziorik ez egiteko eskubideari heldu arren. Hortaz, froga-balioaz gain, genero-indarkeriaren eremuan, erreferentziazko lekukoa funtsezkoa da, ia modu eksklusiboan familiaren intimitatean gertatzen diren delituak frogatzeko froga faltagatik.

Dena den, ulertu da, halaber, polizia-agentea emakumeak aipatutako delituaren egiletzaren zeharkako lekukoa dela, baina, aldi berean, egintza kriminalaren ondorioen zuzeneko lekukoa dela (lesioak, eztabaidak, emakumearen urduritasuna, etab.), eta inguruabar horiek, lekukoaren froga honen bidez frogatuta, delitua egin izanaren zantzu dira¹⁵⁵.

Beraz, emakume-biktimak salaketarik jartzen ez badu, hirugarrenek salaketa jar dezakete eta deklaratu. Izan ere, horretarako betebeharra dute, PKLko 259., 264. eta 410.artikuluen arabera. Beraz, haiei esker zigor prozesuak aurrera egin dezake, nahiz eta emakumeak PKLko 416.1.artikuluko dispentsa erabiltzeko eskubidea izan eta horri heldu.

¹⁵¹ PIÑEIRO ZABALA, Igor, “Los denominados testigos de referencia en los delitos de violencia de género”, *Diario La Ley*, 7581.zk., 2011. Zentzu berean, Madrilgo 59/2022 PAE, urtarrilaren 26koa, 2.OJ.

¹⁵² ESCOBAR JIMÉNEZ, Rafael, “La facultad de no declarar contra determinados familiares en el proceso penal (art. 416.1 LECrim)”, *Diario La Ley*, 7301.zk., 2009, 13.or.

¹⁵³ MONTESINOS GARCÍA, Ana, “La dispensa de declarar de las víctimas de violencia de género”, *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 11.zk., 2012, 218-249.or.

¹⁵⁴ 539/2021 AGE, ekainaren 18koa, 2.OJ; 752/2021 AGE, urriaren 6koa, 4.OJ.

¹⁵⁵ Horren haritik: SERRANO HOYO, Gregorio, “Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género”, *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010, 129.or. Zentzu berean: Avilako 198/2009 PAE, abenduaren 30ekoa, 2.OJ; Madrilgo 190/2010 PAE, otsailaren 4koa, 1.OJ.

2.3. Lesio-partreak eta txosten medikuak froga objektibo gisa

Lan osoan zehar errepikatu dugun bezala, zaila da genero-indarkeriako delituan froga lortzea, familian eta etxean gertatu ohi diren delituak direlako. Horregatik, lor daitezkeen frogak biktimaren deklarazioaren ingurukoak dira beti, sinesgarritasuna emateko eta testigantza berresteko edo desmuntatzeko. Proba horiei periferiko izena ematen zaie, lekukoen adierazpenei sendotasun objektiboa ematen dietelako¹⁵⁶.

Genero-indarkeriaren biktimaren lekukotzaren inguruko proba periferikoen artean lesioen parte edo auzitegiko medikuaren txostena daude¹⁵⁷. Erreferentziako lekukoak ez bezala, zuzeneko frogak dira. Froga horiek garrantzi berezikoak dira biktimak deklaratzeko ez duenean PKLko 416. artikuluko dispensari heltzeagatik. Beraz, lesioen parte eta txosten medikoa oso garrantzitsuak dira, froga gisa nahikoa baita prozedura bat irekitzeko eta irekita mantentzeko, biktimak deklaratu ez arren.

Izan ere, genero-indarkeriarekin lotuta, ezin da ahaztu pertsona jakin batzuek duten berriazko betebeharra, kargua edo lanbidea dela-eta (PKLko 262.art). Ildo horretan, indarkeria matxista jasan dezakeen emakumearen egoera fisikoa edo psikikoa agintaritzari jakinarazten dion alderdi medikoaren salaketa edo emakumeak tratatzen dituzten profesionalek salaketa, subjektuaren ondoriozko salaketa kualifikatua eragiteaz gain, froga objektibo eta lekuko edo peritu-froga izango da, emakume biktimak adierazitakoaren sinesgarritasunari buruzko edozein zalantza argitzeko eragingarritasunarekin, nahiz eta gero erasotzailearen aurka ez deklaratzeko dispensa baliatu¹⁵⁸.

Genero-indarkeriaren biktima guztiek ez dute salaketa-prozesua modu berean hasten. Laguntza bila joaten diren lehenengo tokia ertzain-etxe bat edo abokatutzako profesional bat bada, auzitegiko medikuaren txostena egingo zaio, eta osasun-zentro batera joaten badira, lesioen parte idatziko da. Eta horri esker, genero-indarkeriako zantzurik badago, zigor-prozesuari ekingo zaio, nahiz eta biktimak salaketarik jarri ez

¹⁵⁶ 1435/2002 AGE, irailaren 10ekoa, 2 OJ.; 269/2014 AGE, martxoaren 20koa, 1.OJ.

¹⁵⁷ Grupo de Salud Mental del PAPPs. "Violencia en la pareja: papel del médico de familia". Elsevier, 32.bolumena, 7.zk., 2003, 86.or.

¹⁵⁸ Horren haritik: SERRANO HOYO, Gregorio, "Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género", *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010, 125.or.

VI.- ONDORIOAK

Genero-indarkeriaren arloan deklaratzeko betebeharraren dispentsaren inguruan lan honetan proposatutako gai guztiak aztertu ondoren, lanarekin bukatzeko amaierako konklusio batzuk adieraziko ditugu. Lanean ikusi dugun bezala, urteetan zehar dispentsaren inguruko interpretazio jurisprudenzial eta doktrinal ezberdinak egon dira eta egoten dira oraindik, eta ondorioz, lege-eraldaketa egon arren, argi dago genero-indarkeriaren arloko deklaratzeko betebeharraren dispentsaren inguruko eztabaida ez dela bukatu. Konklusio gisa, hurrengo puntuak aipatuko ditugu:

1. 2021eko lege-eraldaketa arte, dispentsaren erregimena oso zabala zen, hura erabiltzeko muga eta salbuespenik gabe; gainera, hura erabiltzeko moduaren inguruko interpretazio kontrajarriak egon dira urteetan zehar, eta horrek hainbat arazo ekarri izan ditu. Hasteko, sortutako arazoen artean, dispentsaren inguruko eremu subjektiboa azpimarratu beharra dago. Gaur egun, PKLko 416.1.artikuluak dispentsa aitortzen dio erasotzailearen ezkontideari ez ezik, ezkontzaren antzeko egitatezko harremanaren bidez lotutako pertsonari ere. Horren inguruan, lotura hori gertakariaren unean edo deklaratzeko unean beharrezkoa ote zen eztabaidatu zen. Interpretazio-gorabeheren ondoren, jurisprudenzia-ildo berriari esker (389/2020 AGE), ikusi izan dugu dispentsarako aukera duela bikote ohiak ere, betiere gertakariaren unean bikotekideak baziren, deklarazioaren edo epaiketaren unean hala ez izatea alde batera utzita. Eta gu, pertsonalki, ados gaude horrekin. Izan ere, gertaeren unean erasotzailearekin afektibitate-harremana badu emakumeak, ulertzen dugu erasotzailearengatik dituen sentimendu horiek eragina izan dezaketela erasotzailearen aurka deklaratu ala ez erabakitzerakoan, nahiz eta deklaratzeko bere bikotea ez izan; ondorioz, logikoa dirudi emakumeari dispentsa aitortzea gertakariaren unean lotura hori badu erasotzailearekiko. Bestetik, legeak adingabeak eta desgaitasunak dituzten pertsonak hartzen ditu genero-indarkeriaren biktimatzat, emakumeekin batera. Izan ere, indarkeria matxistaren biktimatzat hartzen dira genero-indarkeriaren delituak familiaren intimitatean gertatu ohi direlako pertsona hauen aurrean; ondorioz, logikoa da haiei dispentsarako aukera ematea ere.

2. Ildo horretatik, 389/2020 AGEk lekuko soilaren eta lekuko-biktimaren posizioak ezberdindu ditu. Horren arabera, dispentsa lehenengo lekukoarentzat pentsatuta dago. Dena den, praktikan, emakume biktimari aukera ematen zaio ez deklaratzeko adierazpen horrekin bere ezkontide edo bikotekidearen posizioa arriskuan jartzen badu,

nahiz eta biktima eta lekukoa izan. Ildo horretatik, emakumea gertakarien lekuko bakarra izan ohi denez, haren lekukotza ez edukitzeak erasotzailearen zigorgabetasuna ekarriko du; horregatik, biktimei babes-estatutu berezia aitortu behar zaie haiek deklaratzeko. Gure ustez, genero-indarkeriaz gain, edozein delitutan ez bada ere, lekukoak ez luke dispentsarako eskubiderik izan behar biktimak bera edo bere seme-alabak direnean, horrela erasotzailearen absoluzio askea sustatzen baita. Baina egia da aintzat hartu behar dugula emakumeak egoera bereziki ahulean daudela kasu horietan, derrigortuta, mehatxatuta eta lotsatuta senti baitaiteke. Horregatik, konponbidea litzateke biktimari laguntzea deklarazioa egin ala ez askatasunez erabakitzen, lekuko edo akusatzaile gisa duen estatutuari buruzko aholkularitza osoa ematen zaiola zainduz, eta hori Biktimei Laguntzeko Bulegoetan egiaztatu beharko litzateke.

3. Lanean zehar adierazi bezala, genero-indarkeriako delitu-egitateak familiaren intimitatean gertatzen dira, eta askotan, emakumea izaten da gertakarien lekuko bakarra. Hori dela eta, deklaratzeko erabakitzen badu, logikoa dirudi garrantzi berezia ematea eta errugabetasun-presuntzioa suntsitzeko kargu-froga nahikotzat jotzea egindako deklarazioa. Eta zehazki, horrela ulertu izan da denborak aurrera egin ahala, doktrinaren eta jurisprudentiaren esanetan.

4. 8/2021 LOk egindako erreformarekin, salbuetsi egiten da dispentsari heltzeko aukera, baldin eta emakumeak biktima adingabearen edo babes berezia behar duen desgaituaren legezko ordezkari edo izatezko zaintza badu. Era berean, halako xedapena ezartzen da delitu larria denean (genero-indarkeriakoak, esaterako), lekukoa adin nagusikoa denean eta biktima adingabea edo mendekoa denean; kasu horietan ere dispentsa baztertzen da, eta deklarazioa egitera behartzen da. Beraz, erreformak mugatu egin du emakumearen jarduteko askatasuna, eta gertatutakoa jakinarazteko betebeharra ezarri du, betiere biktima adingabeak edo urrakortasun-egoeran dauden desgaituak tartean badira, eta delitu larria bada. Horrez gain, dispentsa baztertzen da bere adina edo desgaitasuna dela-eta lekukoak ezin duenean ulertu dispentsaren zentzua. Hortaz, ikus dezakegu LOk dispentsaren erregimena mugatzearen arrazoia izan dela zigor prozesuan babes berezia behar duten adingabeak edo desgaituak babestea. Hala ere, gure ustez, erreforma egin behar zen, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak ere babesteko, eta ez bakarrik adingabeak eta desgaituak; izan ere, emakume horiek genero-indarkeriaren

biktima zuzenak dira, kalteberatasun-egoera berezian daude eta babesa behar dute erasotzailearen aurka aurrera egiten laguntzeko.

5. Oraingo jurisprudentziaren haritik (389/2020 AGE), egiaztatu izan dugu prozesuan emakumeak salaketa espontaneoak jartzeak eta emakumea akusazio partikular gisa aurkezteak dispentsari automatikoki uko egitea suposatzen duela. Horrek suposatzen du behin prozesuan aurkeztuta edo salaketa jarrita, hurrengo faseetan emakumea deklaratzera behartuta dagoela, dispentsari heltzeko aukera galduz. Izan ere, AGk dispentsaren zentzugabekeriari eusten dio senarraren aurkako akusazioaren sustatzailea emakumea denean. Hala ere, ekainaren 4ko 8/2021 LOk erreforman, ikusten dugu bakarrik xedatzen dela dispentsa ez erabiltzeko kausa dela akusazio pertsonal gisa aurkeztea, eta ez salaketa jartzea. Izan ere, epaitegietan praktikan egon garen bitartean, ikusi izan dugu emakumeak salaketa jarri arren, dispentsarako aukera ematen zaiola.

Zehazki, azken jurisprudentziarekin bat etorriz, 8/2021 LOk salbuesten du dispentsarako aukera emakumea akusazio partikular gisa aurkeztuta dagoen edo egon den kasuetan. Beraz, ulertzen da prozesuan bertaratze hori dispentsari uko egitea dela. Gauza bera gertatzen da emakumeak, prozeduran zehar, deklaratzera erabakitzen badu, ez deklaratzeko eskubidea duela egoki jakinarazi bazaio. Horregatik, eta biktimari dispentsa hartzeko aukeraren berri emateko betebeharrari dagokionez, egokia da ohartarazpen hori egitea; izan ere, bestela, deklaratzera behartzeaz gain, aitortuta duen eskubide bat urratzen ari zaio. Gainera, informazio argia eta osoa eman behar zaio; izan ere, akusazio partikular gisa aurkeztea edo deklaratzera erabakitzen badu, bere eskubideari uko egingo lioke une horretatik aurrera eta prozesu osoan zehar. Kasu horietan, interpretazio horren bidez, jurisprudentziaren eta legegilearen helburua da lekuko biktima ezin hertsatzea lekukotza eman ondorengo jardunean dispentsa har dezan, eta libre izan dadin deklaratzeko. Baina, horrela, emakumea deklaratzera behartzen ari gara nolabait. Hala ere, muga horrek ez du bermatzen erasotzaileak biktima hertsatzeari utziko dionik. Gure ustez, dispentsa erabiltzera behartzeko hertsatzen duena prest egongo da, halaber, ezkontidearen deklarazioak aldeko eduki zehatz bat izan dezan behartzeko. Hortaz, emakumea ez da izango guztiz libre deklaratzeko, eta arazoa ez da desagertuko.

6. Lan honetan aztertu dugun bezala, askotan emakumeak PKLko 416.1.artikuluko dispentsari heltzen dio hainbat arrazoiengatik, besteak beste: beldurragatik, lotsagatik, seme-alabengatik, presio sozialagatik... Horregatik, legegileak,

genero-ikuspegiarekin, blindatu egin behar ditu biktimei eskaintzen zaizkien tresnak. Batetik, bideokonferentziaren erabilerari esker, biktima babestuta sentituko da, bere erasotzailearekiko eta haren familiarekiko aurrez aurreko konfrontazioa saihestuko baitu. Horrela, lortuko dugu bera derrigortuta ez sentitzea deklaraterakoan. Bestetik, garrantzitsua da biktimarekiko laguntza eta sentsibilizazioa areagotzea, prozesua aurrera egiteak dakartzan ondorioen inguruan aholkularitza jasotzeko, emakumeak deklaratzeko ala ez libreki erabaki dezan.

Era berean, emakumearen deklarazioa ez dagoen kasuetan, gure ustez funtsezkoa da lekukoak, lesio-partreak eta txosten medikuak aintzat hartzea akusatuaren errugabetasun-presuntzioa suntsitzeko; biktimak ikus dezan, berak deklaratu ez arren, badirela beste pertsona eta profesional batzuk bere segurtasuna zainduko dutenak. Horrela, biktima ez da babesgabezia egoera batean egongo. Izan ere, datuek berresten badute indarkeria matxisten gehiengo handi bat ez dela salatzen, isiltasuna haustea aintzatesteke moduko ekintza da, eta, era berean, horrek erakundeak eta gainerako herritarrak behartzen gaitu erantzunak ematera, beste alde batera ez begiratzerik eta “tolerantzia zero” leloan sartzera. Horrela, lortuko genuke emakumea bakarrik ez sentitzea, eta ez deklaratzeko eragiten duen gizarte matxistaren presioa desagertzea.

7. Azken ideia horren harira, biktimak deklaratzeko errefusatu duen kasuetan (nahiz eta legearen aurka joan jada deklaratu bada edo prozesuan akusazio partikular gisa aurkeztu bada), biktimaren aurreko deklarazioak ezin dira erreskatatu PKLko 730.artikuluaren bitartez, auzitegiek urteetan zehar adierazi duten bezala. Baina gure ustez, horrek kontraesanean jartzen du jada deklaraturakoa eta aintzat hartu beharko litzateke deklarazio hori. Egia da aintzat hartu behar dela emakumearen egoera psikikoa, askotan dispentsari heltzen diolako erasotzailearen beldur delako. Baina behin deklaraturik edo akusazio partikular gisa aurkeztuta, erasotzailearen aurkako prozesuari hasiera ematen zaio, haren aurkako akusazioak egin direlako. Beraz, emakumeak bizi duen kalteberatasun-egoeratik gero dispentsari heltzen badiu, eta aurretiko deklarazio hori aintzat hartzen ez bada, askotan horrek suposatuko du erasotzailearen absoltzioa, biktima babesgabeziako egoera batean utziz, eta gure ustez hori ez da bidea justizia egiteko eta emakumea babestuta sentitzeko.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela emakumearen deklarazioa aurretiazko froga gisa sartzeko ahalbidetzen duen erreforma; izan ere, dispentsaren erabilera mugatzen

jarraitu beharrean, birbiktimizazioa saihesteko aukera onena delakoan gaude, 8/2021 LOK adingabe eta desgaituekin egin duen bezala. Horrela, bere deklarazioa aurretiazko froga gisa ahozko epaiketan sartzean, saihestuko dugu emakumeak ahozko epaiketan dispentsa erabiltzea bera berriz ere deklaratzera behartu beharrik izan gabe.

Esandakoagatik ondoriozta dezakegu, urteetan zehar jurisprudentziaren eta legaren helburua izan dela PKLko 416.1.artikuluaren deklaratzeko betebeharraren dispentsaren eremua mugatzea genero-indarkeriaren arloan, emakume biktimari eta adingabeei eta desgaitasunak dituzten pertsonen babes handiagoa eman nahian. Uste izan da biktima direnentzat justizia egiteko modu bat da, erasotzailearen zigorgabetasuna saihesteko.

Hala ere, neurri batean, egia da egindako erreformaren haritik emakumea deklaratzera behartzen ari garela. Horregatik, dispentsarako eskubide hori kendu baino lehen, biktima diren emakumeei entzun beharko litzaieke gai horri buruz, prozesu honen funtsezko eragile gisa, horri buruz libreki erabaki dezaten haien eskubidea kendu aurretik. Helburu hori lortzeko, beharrezko neurriak ezarri beharko lirateke emakume horiek ahalduntzeko, eta, beraz, objektibotasun handiagoz erabaki ahal izateko. Hau da, dispentsaren erabilera mugatu aurretik, kendu egin beharko lirateke biktima horiek prozesu penalari uko egitea eragiten dituzten oztupoak. Komenigarria litzateke Biktimei Laguntzeko Bulegoen erabilera sustatzea, emakume horiek hobe dutenaz jabetu daitezen, eta epaitegi eta auzitegietako instalazioak hobetzea, akusatuairekiko aurrez aurreko konfrontazioa saihesteko eta biktimaren egonkortasun emozionalerako eta segurtasunerako.

Kontrako zentzuan, proposatu izan da emakume biktimek ezin izatea baliatu beren ezkontidearen edo antzeko afektibitate-harreman baten bidez elkartutako pertsonaren aurka deklaratzeko dispentsa-eskubide hori, uste baitute emakume biktima horiek bizi duten animo-egoera dela-eta ezin dutela erabaki egokirik hartu erasotzailearen aurka deklaratzeko dispentsari buruz. Gu proposamen horren alde gaude neurri batean. Egia da biktimen egoera emozionala eta psikologikoa zaila dela kasu horietan eta bere oinarrizko eskubidea dela ez deklaratzeko, baina ez deklaratzeko aukera ematen badiegu, baliteke erasotzailea inoiz ez kondenatzea gertatutakoagatik, eta gertaerak errepikatzea, eta hori ez da bidezkoa biktimarentzat. Izan ere, biktima diren emakume asko beren bikotekideak edo bikotekide ohiak beren bizitzaren edo osotasun fisikoaren aurka atentatzeko arrisku

objektiboan daude etengabe, eta, beraz, babes egokia eman behar zaie, deklaratzera animatuz eta haien deklarazioa kargu-froga nahikotzat hartuz.

Hala ere, konklusio gisa, arestian esan bezala, gure ustez, genero-indarkeriari aurre egiteko konponbiderik onena biktimaren deklarazioa aurretiazko froga gisa eratzea litzateke. Behin berak deklaratu duenean edo akusazio partikular gisa eratu denean, ondo dago dispentsari heldu ezin izatea, erasotzailearen aurkako epaiketak aurrera egin dezan. Baina, bere deklarazioa aurretiazko froga gisa eratuko balitz, horrek saihestu egingo luke biktimak dispentsari heldu nahi izatea, ez bailuke berriro ahozko epaiketari deklaratu beharko, birbiktimizazioa saihestuz, eta haren deklarazioa kontuan hartu ahal izango litzateke kargu-froga gisa. Horregatik, uste dugu orain hutsune bat dagoela eremu horretan, legezko erreforma bidez konpon daitekeena.

VII.- BIBLIOGRAFIA

Bibliografía

- BAQUERO MARTÍN, Araceli, *La videoconferencia en las garantías del proceso penal*, Sevillako Unibertsitateko doktore-tesia, Sevilla, 2017.
- BELTRÁN MONTOLIU, Ana, “Víctima de violencia de género y la dispensa del art- 416 Lecrim: Evolución jurisprudencial”, *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 19 zk., 2018.
- CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Dispensa del deber de declarar. ¿derecho de la mujer víctima de violencia de género?”, VALIÑO CES, Almudena (Koord.), RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana (Koord.); CASTILLEJO MANZANARES, Raquel (Zuzend.); ALONSO SALGADO, Cristina (Zuzend.); *El género y el sistema de (in)justicia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020.
- CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, “Nueva doctrina jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en violencia de género”, *Diario La Ley*, 9713 zk., 2020.
- CASTILLEJO MANZANARES, Raquel, *Política Legislativa y Violencia de Género*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020.
- DE LA HERRÁN RUÍZ-MATEOS, Sergio, “A vueltas con la dispensa del deber de declarar de las víctimas de violencia de género a propósito de la Sentencia del Tribunal Supremo 389/2020, de 10 de julio”, *UNED. Revista de Derecho Penal y Criminología*, 23 zk., 2020.
- ESCOBAR JIMENEZ, Rafael, “La facultad de no declarar contra determinados familiares en el proceso penal (art. 416.1 LECrim)”, *Diario La Ley*, 7301.zk., 2009.
- ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco, “Protagonismo probatorio de la víctima en el proceso penal inconvenientes y ¿posibles soluciones? (al hilo del Convenio de Estambul)”, *Revista Boliviana de Derecho*, 33.zk., 2022.
- FERREIRO BAAMONDE, Xulio, *La víctima en el proceso penal*, La Ley, Madril, 2005.
- FLECHA MUÑOZ, Juan Antonio, “La STS 389/2020, de 10 de julio: el antagonismo definitivo entre el derecho a la dispensa del artículo 416.1 LECRIM y el ejercicio de la acusación particular”, *Diario La Ley*, 9741.zk., 2020.
- FRANCO SERRANO, María Teresa, “La declaración testifical de parientes. La dispensa a declarar de la víctima del delito. Tratamiento jurisprudencial”, *Diario La Ley*, 9717.zk., 2020.
- GAMAZO CARRASCO, María Belén, “Análisis de las principales novedades en la LECRIM introducidas por LO 8/21 de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9936 zk., 2021.
- GERAS MONTILLA, Luis, “La dispensa a declarar contra los parientes tras la sentencia del Tribunal Supremo 389/20 de 10 de julio”, *Noticias Jurídicas*, 2021. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/16108-la-dispensa-a-declarar-contralosparientes-tras-la-sentencia-del-tribunal-supremo-389-20-de-10-de-julio/>
- GONZÁLEZ MONJE, Alicia, “Interpretaciones jurisprudenciales en torno a la dispensa del deber de declarar en violencia de género. Especial referencia al ejercicio de la acusación particular”, RAMOS HERNÁNDEZ, Pablo (Koord.); FIGUERUELO BURRIEZA, Ángela (Zuzend.); DEL POZO PÉREZ, Marta (Zuzend.); *Formando en la igualdad real: Contenidos para un proyecto democrático*, Aranzadi, Nafarroa, 2021.

- HERNÁNDEZ GARCÍA, Javier, “La facultad de abstención del deber de declarar por vínculos personales con la persona acusada”, *Valoración del daño en las víctimas por violencia de género, Estudios de derecho judicial*, 139.zk., Madril, 2007.
- HERRERO ÁLVAREZ, Sergio, “El ajetreo jurisprudencial sobre la dispensa del deber de declarar en procesos por violencia de género: la Sentencia 389/2020 de 10 de julio”, *Diario La Ley*, 9693.zk., 2020.
- JORDÁN DÍAZ-RONCERO, María José, *Análisis de la implantación y eficacia de la videoconferencia en el proceso penal español: Hacia una modernización de nuestro sistema de justicia penal*, Valentziako Unibertsitateko doktore-tesia, Valentzia, 2014.
- LÓPEZ CHACÓN, María Jesús, “Reflexiones sobre la STS 389/2020, de 10 de julio, en cuanto a la dispensa de la obligación de declarar de la víctima de un delito de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9729.zk., 2020.
- MAGRO SERVET, Vicente, “Análisis de la reforma procesal penal de la Ley Orgánica de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia”, *Diario La Ley*, 9862.zk., 2021.
- MAGRO SERVET, Vicente, “La imposibilidad de conceder a las víctimas de la Violencia de Género la dispensa de declarar contra sus agresores (art.416 LECrim): ¿Es necesaria una reforma legal?”, *Diario La Ley*, 6333.zk., 2005.
- MARAVALL BUCKWALTER, Isabel, *El derecho del niño a acogerse a la dispensa del deber de declarar. Reflexiones desde el Derecho Internacional de los Derechos Humanos*, InDret, 1.zk., Bartzelona, 2019.
- MARTÍNEZ MORA, Gema, “La difícil protección judicial de la víctima de violencia de género. La dispensa del deber de prestar declaración del artículo 416 LECrim”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2176 zk., 2015.
- MONTESINOS GARCÍA, Ana, “La dispensa de declarar de las víctimas de violencia de género”, *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 11.zk., 2012.
- MONTESINOS GARCÍA, Ana, *La videoconferencia como instrumento probatorio en el proceso penal*, Marcial Pons, Madril, 2009.
- PIÑEIRO ZABALA, Igor, “Los denominados testigos de referencia en los delitos de violencia de género”, *Diario La Ley*, 7581.zk., 2011.
- RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Ana, “Claves de la reforma de la dispensa del deber de declarar ex Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio”, *Diario La Ley*, 9916 zk., 2021.
- RUIZ RODRÍGUEZ, M^a Adoración, “La dispensa al deber de declarar (art. 416 Lecrim). Nueva vuelta de tuerca. Comentario a la Sentencia 389/2020 de 10 de julio”, *Diario La Ley*, 9710.zk., 2020.
- SERRANO HOYO, Gregorio, “Sobre las posibles conductas procesales de la mujer víctima de delitos de violencia de género”, *Anuario de la Facultad de Derecho. Universidad de Extremadura*, 28 zk., 2010.
- SIBONY Ruby; SERRANO OCHOA María Angeles; REINA Olga, “La prueba y la dispensa del deber de declarar por la testigo-víctima en los procedimientos de violencia de género”, *Noticias Jurídicas*, 182.zk., 2011. Eskuragarri: <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/4652-la-prueba-y-el-derecho-a-la-dispensa-del-deber-de-declarar-por-la-testigo-victima-en-los-procedimientos-de-violencia-de-genero/>

- VILLAMARÍN LÓPEZ, María Luisa, “El derecho de los testigos parientes a no declarar en el proceso penal”, *Indret, Revista para el análisis del Derecho*, 4.zk., 2012.
- YUGUEROS GARCÍA, Antonio Jesús, “Las dispensas procesales en el contexto de la violencia de género en las relaciones de pareja o expareja”, *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, 79.zk., 2018.

Txostenak

- CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, “El Tribunal Supremo fija que la víctima constituida en acusación particular en un proceso judicial no recupera el derecho a la dispensa de declarar si renuncia a esa posición procesal”, *Poder Judicial España, C.G.P.J - Noticias Judiciales*, 2020.
- FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XVII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2021”, Madrid 15 y 16 de noviembre de 2021.
- FISCALES DELEGADOS EN VIOLENCIA SOBRE LA MUJER, “Conclusiones del XII seminario de Fiscales Delegados en Violencia sobre la Mujer - Año 2016”, Madrid 7 y 8 de noviembre de 2016.
- GRUPO DE SALUD MENTAL DEL PAPPS, “Violencia en la pareja: papel del médico de familia”, *Elsevier*, 32.bolumena, 7.zk., 2003.
- DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO, *Documento refundido de medidas del pacto de estado en materia de violencia de género. Congreso + Senado*, Ministerio de Igualdad, Madril, 2019. Eskuragarri: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/pactoEstado/docs/Documento_Refundido_PEVG_2.pdf
- DELEGACIÓN DEL GOBIERNO CONTRA LA VIOLENCIA DE GÉNERO, *Macroencuesta de violencia contra la mujer*, Ministerio de Igualdad, Madril, 2019. Eskuragarri: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/Macroencuesta_2019_estudio_investigacion.pdf
- OBSERVATORIO CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA Y DE GÉNERO, “Informe anual sobre violencia de género, año 2021”, Poder Judicial España, C.G.P.J – Violencia doméstica y de género – Actividad del Observatorio – Datos estadísticos, 2021.
- OBSERVATORIO CONTRA LA VIOLENCIA DOMÉSTICA Y DE GÉNERO, “La violencia de género en 10 indicadores / año 2021”, Poder Judicial España, C.G.P.J – Violencia doméstica y de género – Actividad del Observatorio – Datos estadísticos, 2021.

Jurisprudentzia

Konstituzio Auzitegia

- 94/2010 KAE, azaroaren 15koa.
- 206/2003 KAE, abenduaren 1koa.
- 195/2002 KAE, urriaren 28koa.
- 64/1994 KAE, otsailaren 28koa.
- 229/1991 KAE, azaroaren 28koa
- 173/1990 KAE, azaroaren 12koa.

Auzitegi Gorena

- 365/2022 AGE, apirilaren 8koa.
- 310/2021 AGE, apirilaren 12koa.
- 329/2021 AGE, apirilaren 22koa.
- 342/2021 AGE, apirilaren 23koa.
- 485/2021 AGE, ekainaren 3koa.
- 539/2021 AGE, ekainaren 18koa.
- 658/2021 AGE, irailaren 3koa.
- 752/2021 AGE, urriaren 6koa.
- 225/2020 AGE, maiatzaren 25koa.
- 347/2020 AGE, ekainaren 5koa.
- 315/2020 AGE, ekainaren 15koa.
- 389/2020 AGE, uztailaren 10koa.
- 119/2019 AGE, martxoaren 6koa.
- 310/2019 AGE, ekainaren 13koa.
- 355/2019 AGE, uztailaren 10koa.
- AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2018ko Erabakia, urtarrilaren 23koa.
- 49/2018 AGE, urtarrilaren 20koa.
- 188/2018 AGE, apirilaren 18koa.
- 205/2018 AGE, apirilaren 25koa.
- 282/2018 AGE, ekainaren 13koa.
- 209/2017 AGE, martxoaren 28koa.
- 557/2016 AGE, ekainaren 23koa.
- 400/2015 AGE, ekainaren 25koa.
- 449/2015 AGE, uztailaren 14koa.
- 269/2014 AGE, martxoaren 20koa.
- 553/2014 AGE, ekainaren 30koa.
- AGeko Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2013ko Erabakia, apirilaren 24koa.
- 1010/2012 AGE, abenduaren 21koa.
- 160/2010 AGE, martxoaren 5koa.
- 459/2010 AGE, maiatzaren 14koa.
- 952/2010 AGE, azaroaren 3koa.
- 13/2009 AGE, urtarrilaren 20koa.
- 294/2009 AGE, urtarrilaren 28koa.
- 129/2009 AGE, otsailaren 10koa.
- 292/2009 AGE, martxoaren 26koa.
- 164/2008 AGE, apirilaren 8koa.
- 134/2007 AGE, otsailaren 22koa.
- 385/2007 AGE, maiatzaren 10koa.
- 625/2007 AGE, uztailaren 12koa.
- 725/2007 AGE, irailaren 13koa.
- 1225/2004 AGE, urriaren 27koa.
- 1505/2003 AGE, azaroaren 13koa.
- 57/2002 AGE, urtarrilaren 28koa.
- 1435/2002 AGE, irailaren 10koa.
- 662/2001 AGE, apirilaren 6koa.
- 331/1996 AGE, apirilaren 11koa.

Justizia Auzitegi Nagusia

- Madrilgo 106/2022 JANE, martxoaren 16koa.
- Nafarroako 19/2021 JANE, ekainaren 11koa.
- Valentziako 149/2018 JANE, abenduaren 18koa.

Probintzia Auzitegia

- Palma de Mallorcako 16/2022 PAE, urtarrilaren 14koa.
- Madrilgo 59/2022 PAE, urtarrilaren 26koa.
- Albaceteko 382/2021 PAE, abenduaren 15koa.
- Santa Cruz de Tenerifeko 440/2021 PAE, abenduaren 15koa.
- Madrilgo 625/2021 PAE, abenduaren 22koa.
- Madrilgo 190/2010 PAE, otsailaren 4koa.
- Avilako 198/2009 PAE, abenduaren 30koa.

Araudia eta erabakiak

Europa mailan

- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2021eko urriaren 6koa, etxeko indarkeriak eta zaintza-eskubideak emakumeengan eta haurrengan duten eraginari buruzkoa (2019/2166(INI)).
- Istanbulko Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa, Istanbulen eginia 2011ko maiatzaren 11n.

Estatu mailan

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.
- 5/2015 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena.
- 8/2015 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak babestekoa
- 13/2009 Legea, azaroaren 3koa, Bulego judizial berria ezartzeko legeria prozesala aldatzen duena.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoa.
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa.
- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.
- 6/1985 Botere Judizialaren Lege Organikoa, uztailaren 1koa.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa, abenduaren 6koa.
- 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena.

Lege-aurreproiektuak

- Prozedura Kriminalaren Legearen Aurreproiektua, 2020ko azaroaren 24koa.

Zirkularrak

- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 6/2011 Zirkularra, azaroaren 2koa, Fiskaltzaren jarduera-unitate espezializatutako irizpideei buruzkoa, emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez.

Instrukzioak

- Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 3/2002 Instrukzioa, martxoaren 1ekoa, bideokonferentzia bidez egin daitezkeen egintza prozesalei buruzkoa.